

ZUBIRI'TAR IÑAKI

# BIDETIK AMESETAN

TXINDOKI - SORTA 4

BIDETIK AMESETAN

Txindoki  
-sorta

4



TXINDOKI - SORTA 4



# EUSKERAZAINZA'K

EDILI  
GETARIA, 21 bean  
DONOSTIA

ZUBIRI'TAR IÑAKI

# BIDETIK AMESETAN

Argitaldari: EDILI-Donosti  
Irarkola: LOREA-Donosti  
Dep. Leg. S. S. 667 - 84

## ITZ AURREA

*Nere adiskide miñ dan Migel Pelay Orozko'k, Yon nere anai zanaren "NEKE TA POZ" izeneko liburuan, itz-aurrea idazterakoan, au zion: "Itz-aurreak ez du liburuaren elerti-irizpidea emateko izan bear. Azken batean, ori irakurleari berari dagokio, iñoren argibide ta eragiterik gabe".*

*Ni ezin-ba asi liburu onen elerti-irizpidea ematen, baiña bere egille Zubiri'tar lñaki nor dan jakiteko irrikiz egongo zerala, ta bere berri ematera noakizu.*

*Ogibidez, ingenieroa duzu; jaiotzez, bizkaitarra; izaitez, euskaldun, fededun ta abertzale sutsua.*

*Zubiri jauna nor dan jakiteko, berak idatzitako liburuak irakurtzea naikoa. Luzegi jo gabe, nik irakurritako bere bi liburu aztertuko ditut: "GALDU" ta "IZADIKO PITXIAK".*

*"GALDU"k, itz egiten dun txakur baten gertakizunak adierazten ditu, ta itz-lauz idatzia ba-dago ere, le-ro guzietan egillearen olerkari sena nabari da. Ain atsegiña, bizia ta arrigarria izanik, alakoren batean marrazki bizidunetan jarria izan dala entzuten ba'duzu, ez batere arritu. Ainbeste gaietan ain jakitun dan Latiégi'tar Bixente'k "GALDU" liburua irakurri ondoren, Cervantes'en "EL COLOQUIO DE LOS PERROS" irakurri nai izan zun, eta ara bere iritzia: "El coloquio de los perros" oso polita da, baiña "GALDU", askoz askoz ohea". Nik ezer geiago esan bearrik ez.*



*"IZADIKO PITXIAK" liburuan, Euzkadi'ko pitxi bezela, arrai, pizti ta abere batzuk aitatzen ditu: aingira, azeria, basurdea, otsoa, artza, erbiñudea, azkonarra ta abar. Baikotzaren bizikera, xeetasun guziekin adierazten du, ta irakurgai bizi, arrigarri ta atsegiña izanik, pitxi oien gora-bera guziak, jaiotzen diranetik eriotza iritxi arte, zine batean ikusiz egongo ba'ziña bezela arkitzen zera. Adibidez, aingirak gure mendietako ibai barrenetan gauzatzen diranean, itsasora irten eta beste millaka aingirekin alkartu ta Atlantiko itsasoaren barrena, arraultzak jartzera Sargazos ingurura iritxi arte, beaiek baiño aundiagoak diran arraiekin dituzten burrukak irakurtzean, atsegiñez beterik gelditzen da bat.*

*Olerki-liburu onekin ere, zuri beste ainbeste gertatzea naiko luke.*

OÑATIBIA'TAR MANU'K

## BIDEKO ZOROA

Ikusi ete dozu aizeño mea  
aspalditik joan yatan semea?  
Erriaren dei larria entzunik  
biotza dardar jarri zan zutunik,  
itzi zuan bere kabi maitea  
eta ordutik galdu neban bakea.

Zein gau illunak nire biotzean!  
Zein egun itsak ene bizitzean!  
Zatorkidaz seme laztan kutuna,  
ekarstazu biotzari zoruna;  
bakarraldiz ausitako gogoan,  
zu baiño ez dot irrikatzen alboan.

Entzun ete dozu itsaso zakarra  
nire semearen urrats azkarra?  
Arbaso-lurrak bear izan zuan,  
eta dana itzita, egarmin itsuan  
maite-maite neban seme bakarra  
joan yatan... Au bai illunabarra...!

Zein mingarria naroan bidaia!  
Zein ituna au iraupen alderraia!  
Erdu ene maitia, erdu bai arin,  
ken egidazu seme orrek, neure min,  
biurtu bekit gaba egun alaia,  
zakidaz ene naigabeen amaia.

Esan, bide-ondoko tantai neurea  
non dabillan joan yatan semea.  
Abendaren dei etsia adituta,  
gaztediko maitasunak sututa,  
besarkada sendo bataz, ai ene!  
itzi ninduan negarrez eme-eme

Zelai-ertzeko lore txanbeliña  
tximeletak aiñako dantzariña,  
azkenez ikusi zenduanean  
malko bat jausi yatan isillean.  
Orain oro biurtu da utzikiña,  
norabage nabillala ni erkiña.

Dei ta deika nagokio gau oro  
baiñan au betiereko ames zoro!  
Ba-dakust begiak utsik atsanka,  
urduri datorkidala, ta arrenka  
eskatzen daust, eskuakaz leunkiro  
bizitzara ekar dagidan barriro.

Eguzkiaren amaia bai'litzan  
lore gorri bizia bekokian  
ba-datorkit neure laztan kutuna,  
ken dagiodan pairamen astuna,  
alabaiñan jadanik urbiltzean,  
iratzokara galtzen yat utsean...

Aizeño, tantai, itsaso zakarra  
baita zelaiko loretxu ñabarra,  
ekarstazue bein joan yatana,  
itzali kiskaltzen nauan jorana,  
ikusi ama baten bide malkarra,  
entzun nire biotzeko negarra...

Baiñan amaren naigabe larria,  
gauan zear jaulkitako aldarria,  
erantzunik bage geratzen dira...  
Oi biotz bakarti baten pilpira,  
begi gorrien so kiskalgarria,  
baretu eziñeko seme-egarria...!

Mutilla maite zuan eriotzak  
biali eutsazan laztan otz-otzak;  
bat untzatu yakon bekoki-erdian,  
eta apa izoztuaren tokian,  
lore baten odolezko tolesak  
il ebezan quadariaren amesak.

Bakean itzali da Aberri-opari,  
zendu yaku Euzkadi-alde gudari.  
Eriotzak ain maite-maite ebana,  
ama baten biotzeko laztana,  
mutil kementsu baten emokari,  
goian dago gure aberri-zaindari.

Negar darie tantai-loreari  
asperenak itsaso ta aizeari.  
Amaren biotz eta begietan  
miñak aldatu yakoz amesetan,  
dei egiten dautsola semeari,  
sena galdu baiyako gaisoari...

Begi-zoro, kizkur, tximak aizean,  
bidetik dabil taigabe usnean  
ea dakien semearen barririk,  
edo-ta ikusi ete izan dan iñondik,  
elaiak esan baidautso goizean,  
ba-zala baserrirako bidean.

Aize me, tantai, itsaso zakarrak,  
zelai-ertzeko loretxu ñabarrak  
eta bidetik zoazen oinkariok  
ez kendu ama orren ames biziok,  
itxaropen zoroaren sukarrak  
garaitzen baiditu biotz-negarrak...

## ISIL - ISILLIK

Zorotzeraiño maite neban  
gure baso-lore yaukala,  
maite neban eriotzeraiño  
araneko kutun apala.

Izarretaraiño poz-pozik  
joango nintzakean egalari  
zidar-izpiak eskintzeko  
neure biotzeko laztanari.

Itsasoko sakonenera  
elduko nintzan urpekari  
diamante urdiñak emoteko  
neure gogoen jaubeari.

Oianeko illuneneraiño  
sartuko nintzan ibiltari,  
txori-eresiak ekarteko  
neure biotzeko erregiñari.

Lurreko erraietan zear  
jatsiko nintzan aitzurlari,  
urrezko ontziak eskintzeko  
neure zeruko izartxuari.

Etsiteraiño maite neban  
maite neban isil-isillik,  
biotzeko atsekabe mingotsa  
nigandik alderatu eziñik.

Baiña zabaldiko lorea  
gaindegiko artizar ederra,  
ez zan nigaitik arduratzen  
betiko arlote landerra.

Bein baten, bidetik etorran  
gazte lerdena igarotean,  
gelditu zan legunkerietan  
basoko lorea ikustean.

Errubakoaren gogoan,  
palagari, bigun, eztitsu,  
aurrez atonduriko ipuiñak  
eregin ebazan guzurtsu.

Zuzen-zuzen, xalo, gartsuki,  
basoko lore yaukalari,  
beragan eban ederrena  
alde egin yakon egalari.

Oi, emon izan ba'litzakit  
maitasun aren pozgarria,  
betiko baretu leikidan  
gogo ta biotzeko egarria!

Gaztearen besoetan dardarrez,  
lore txanbeliña orduan  
lotsaren-lotsaz gorrituta,  
begiak beeratu zituan.

Oi, nigaitik ertsi ba'litu  
zeru-zati eder maitiak,  
emongo neukezan betiko  
ditudan begien niniak!

Illunabarrean il-urren,  
zauri izugarria biotzean,  
neure baso-lore kutuna  
idoro neban bide-ertzean.

Ene beso maitekorretan  
bera negarrez ni isillean,  
laztandu neban maite-maite  
illunabarko urre-bakean.

Neure altzoan irribarreka  
geratu zan isil-isillik,  
baiña, oi biotzaren miña,  
besoetan zetzaidan il-illik!

Astigar tantaipetan datza  
zoroki maite nebana,  
eriotz ankerrak erauzita  
ene lore maite izan zana.

Obian lorak jartzen ditu  
basoko aize baltzaranak  
eta gauoro nire oroitzak  
amaitu eziñeko laztanak.

Egunak gau biurtu yataz,  
gauak damodaz negarretan,  
mundutik alderrai noala  
beti bidetik amesetan...

## KILKERRARI

Kir-kir baten soiñua  
gau-gentzan kilikari,  
etenbage datorkit  
maitasun-abeslari.  
Bake-ekarle zarana  
ijito arrabitari,  
zakidaz gau luzean  
amesen zaindari.

Ikatza alako illuna  
gau-kolko sakonetan,  
gogo-argia zaukat  
nire bide luzeetan.  
Izarren argi dakust  
Zure begi baltzetan,  
tximeleten dardarrak  
ukimen-adarretan.

Aingeru-egoak dozuz  
ijito zerutarra,  
areik ez dabe baiña,  
zure soiñu gautarra.  
Beti bardiña ei'da  
zure eresi bakarra,  
baiña niretzat ba-dau  
erakarpen goitarra.

Loa igesi ba'yabilt,  
urruma txanbeliñaz  
barriro be datorkit  
eresneurri ariñaz.  
Amestxar ba'letorkit,  
zidarrezko txiliñaz  
baretuko ninduke  
izar-laztan oztiñaz



Neu langoxe izanik  
oindiño mutilzarra,  
larri dabil topatzeko  
bere lagun azkarra.  
Jauregiko sarreran  
soiñulari zangarra,  
taibage billa dabil  
biotzeko artizarra.

Maitetxua agertuta,  
udako egun batean  
kabia egingo dau  
jauregiko sakonean.  
Bera baizen illunak  
illara amaibagean  
jaioko ordeko ugari  
urrengo udabarrian.

Udako asikereaz,  
ijito maitaleak  
isiltzen dauz betiko,  
zeruko joaleak.  
Ortzitik joan dira  
nire izar jagoleak,  
nok laztanduko daustaz  
betazal logaleak?

Larrako arrabitari,  
jardazu bereala  
biotzeko bidean,  
maite-maite yaukala,  
bizitzaren gau-zear  
poz-pezik alkartu-ala,  
ezeren bildur barik  
ibilli gaitetzala.

## ORBELAREN ERESIA

Eroan nagizu egoko asperena  
eriotzagaz dodan dei-lekura;  
erauzi nagizu tantai ontatik  
nire begira dagoan zerura.  
Jardazuz soiñean arrano-egoak,  
aboan urretxindor-samurdura,  
ames egin daidan eguratsetik,  
ez baidot bakartasunaz il gura.

Besakarda epelaz artu nagizu,  
erein neugan urruneko jorana  
lurralde sorgingarritik zatozan  
neure gogo-biotzeko laztana.  
Amesak dakarstazan izartxuak  
bart esaustan, ego-aize bakana  
udagoiko bidetik etorrela,  
su ta urrezko suzmurrakaz neugana.

Ortzian ene izartxua ostenduta,  
eldu zatxataz baso-margolari,  
orlegia urre gorri biurtzeko,  
baita eiagora eresi sorginlari.  
Artu nagizu zeure besoetan  
izan naiten goizean egalari,  
eguerdian basotik norabage,  
ta gero illargi-altzoan ameslari.

Uluka, aizearen putz indartsuak  
jarei naroa eguna jaiotzean,  
zurrunbilloen beso samurretan  
beti gora zeru oztin aratzean.  
Urrezko aintzan eguzkia dager  
oatze gorrizkatik jagitean,  
gabeko illeta-soiñua uxatuz,  
basoa alaitzen dala argi-sortzean.

Suzko itsaso dantzaria bai'litzan,  
suzmur eta uluka dabil basoa  
aize-orrazi epelean aiurika,  
ezin uxatuz aroko eraso.  
Ba-noa udazkenaren besoetan  
sukarrezko amesak baizen zoroa,  
aizeari irrikan narraikiola  
entzutearren bere ipuin gozoa.

Egarri naz aize maite-maite ori,  
itzi nagizu an beeko lats-ertzean,  
intzeko laztanakaz oztu naiten  
zidarrezko eresien artean.  
Goiztirian menditarra jaiorik,  
baso-usaiña dario eguberdian,  
arrats-beeran baserritar jatorra,  
ta itsastar kresaltsu illunabarrean.

Suzko iratxo biurria bai'nintzan  
eroan nagizu firi-firian,  
igurikan dodan bedar lotiak  
atz orlegiakaz laztan nagian.  
Nire urrats zirikotsua aditzean,  
apa-laztanduko nau etsi-etsian  
abes dagiodan neure olerkia  
udagoiko sorgindura garbian.

Urre-asperen zaran tximeletaiño,  
suzko egoak oztiflean dantzari  
itxoidazu inarraren erpiñean,  
ni nauzun udazkeneko ibiltari.  
Apa egoduna zara eguratsean,  
tantai-artean sorgin-mandatari;  
loreek zaitue urrupale maitia,  
ni osterak ames zoroen ereinlari.

Illuntzeko zurrumbillo batean,  
adarretik nakus urrexindorrek,  
ta bere kadena jabetu eziñik,  
jaulkitzen ditu itunezko negarrak.  
Leunki datozkit illunabarrean  
joran galduaren inka gautarrak;  
zorionez dardar etor bekidaz  
il baiño len, bizi-miñaren garrak.

Urteak yoatzuzan neskatil ori,  
iturri-ondoan zakust negargale,  
biotzean dozun ogasun-billa  
ez baidator inondiko edertzale.  
Txukatu egizuz begi baltzaranok  
zeru-zatia zaran ur-ekarle;  
negura barik etorriko yatzu  
irrikatzen dozun eusko maitale.

Odoltzen ari da oianeko urrea;  
odei baten magal gorrimiñean  
il-urren ezkutatu da eguzkia,  
baratxe suntziten dala urrunean.  
Basoko orbelak mara-mara darorz  
malko odoleztuak eguratsean,  
aize epelari eskatzen dautsadala  
egan naroiala illuntze ederrean.

Aizeak damostaz egal oztifñak  
yatordan gau-lillura ikus dagidan;  
ortzian izar-begiak dargie  
galduriko krisailluak ba'liran.  
Basoko orbelak baizen ugariak  
ñir-ñirka yabildaz urrungo utsean,  
baiña ene amesen izartxua ikusirik,  
bera bakarrik daukat biotzean.

Negar-jauskera bigun ta isillaz,  
astiro dator gabeko laiñoa  
ibaiko izpillu lotiaren billa,  
aspaldiz bere kutun maiteñoa.  
Zelaiari damotsoz txirlarriak,  
iturriari izotzezko loskoa,  
ibaiak goizean ikus dagian  
bere maitasunaren jarioa.

Urrundari zaran illargi ederra  
emon eidazu zidarrezko izpia,  
zure magal amatar ozkirrian  
baretu dakidan neure egarria.  
Ezain nozu oian amaibagean,  
indar gitxiko itzal egalaria,  
baiña naroan aize-arnas epelak  
biurtzen nau basoko olerkaria.

Besana illunpean il da illargia;  
gaua arrausika dago goizaldean;  
ego-aize urredun txistularia  
bareagotzen asi da argitzean.  
Eriotzarekin dodan il-deia  
urrats isillakaz urreratzean,  
illobi egokiaren billa nabil  
jaio nintzan oian neurribagean.

Tantai-arteko zelaigune aretan,  
beñola ekaitz basatiak goizean  
itzi eban andarra baten azia  
urretxindorrek alaitu zeitezan.  
Baiña baso-lorearen alea  
jausi zan zoritxarrez elkorrean,  
eta gaur loretxurik ezin sortuz  
alieneka entzuten dot bakarrean.

Ego-aize margolari bikaiña  
ur dabilkit bizitzaren azkena,  
atseden nai dot andarra-ondoan  
beragan sor daiten itxaropena.  
Nigandik artuko dauan indarra  
izango da lore baten sorpena,  
ataletan adituko yakola  
orbel alderraiaren asperena...

## BASO - SAGUA

Itxaron illuntasun arte  
amabako sagu maitia;  
basoan eriotza dabil  
zu arrapatzeko itzarria.  
Gabeko urrats illuna dantzul  
ba-doa parrastaka argia;  
illuntzeak basora dakar  
leiatzen dozun janaria.

Itsasoaren besoetan  
il da eguzkiaren sukarra,  
zeruko bide urrutietan  
dardarka dager artizarra.  
Gabeko aizeño baltzarana  
basotik datorkizu azkarra,  
abereai iragarteko  
ba-datorrela illunbarra.

Asi zaitetz orain astiro,  
ta zulotik urten aurretik,  
aztertu aldamenak polliki  
ea ete dan okerbiderik.  
Kontuz ibilli ene maitia  
ez baidozu amaren babesik,  
bart mozoilloak eraso eban  
zurtz geratu zarala ordutik.

Goian izar baten keiñua  
dargi zuretzat maitekiro,  
berau dozu gaur krisaillua  
bideari ekiteko astiro.  
Ez zaitetz oldartu ariñegi,  
benetan diñotzut, aldi oro  
etsai baltzak nonai dituzu  
sortu da-ta eizarako giro.

Jatsi zaitetz bidetik ernai,  
apatx baten aztar-barruan  
arto-ale gorri ederra dozu  
ango lizarraren ondoan.  
Itxaron, baiña, unetxu batez,  
azeria dator isillean,  
beti janariaren ames  
gelditu dala bide-ertzean.

Ezkutatu arin bai arin  
sasi-arte datzan arripean,  
ondoko aizpatan-usaiñak  
azeria atzipetu daian.  
Begiak txingar alakoak  
urreratzen yatzu isillean,  
baiña zure aztarna galdurik,  
urruntzen da baso-itzalean.

Aizu, an bidean beera datza  
arto-alea zure igurikan,  
apatx-zuloan geldi-geldi  
urrezko bitxia bai'litzan.  
Jañ eizu baratxe-baratxe,  
illuntasunaren altzoan  
oillarraren deia entzun arte  
gaua nekatu daitenean.

Arto-aleak eragiten dautsun  
egarri andia baretzeko,  
areitz baten orbel-ontzian  
eperditxu ur dozu edateko.  
Txastau egizu ur garden ori  
astiro, baiña, ikusteko  
zelan izar baten dizdira  
gai dala edontzia edertzeko.



Begira orain odei-ostean  
zelan dager iretargia  
baso kutunari emoteko  
aren besarkada zuria.  
Begotan kokatu yatzu  
bere irudi garbi-garbia;  
biotzean gorde betiko  
diamantezkoa dan bitxia.

Illargi-dizdira illunduz  
mozoilloa dator zugana,  
basoko erailtzaille isiltsua,  
aurtemin zure ama il ebana.  
Ezkutatu enbor orren pean...  
ba-dator gabea labana,  
baiña erpeak uts egitean  
urten yako oi u bakana.

Idoi-ondoko aunts-ostoak  
dituan lore bellegiak,  
zure begira dozuz orain  
emotearren gun eztiak.  
Jarraiozu aren lurriñari  
ken dakizuzan egarriak,  
eta gero idoi-ertzetik  
aditu igelen abestiak.

Entzun maite, orbelan zear  
kirrika motel etenduak;  
erbiñudeak usnatu zaitu  
indarrak gosez aulduak.  
Or dozu alboan kilker -zuloa,  
aitu etsaiaren ats-estuak,  
gorde zaituz arin bai arin...  
Uxatu dozuz erpe uzuak!

Begira or aurrean ezkur bat,  
areitzaren udagoiko emoitza;  
jaten baldin ba'dozu osorik,  
zuga sortuko da indar gaitza.  
Iruntsi mamiña, ez ezala,  
bedi au urde baten baskaitza,  
zuk oster a sabel bete urun,  
egin dagokizun eoitza.

Egarri zara barrero  
nire sagu maite txikia,  
baiña sagastian ba-dozu  
boskanto i bat jausi barria.  
Atzo bertan ar lodi batek  
an aukeratu eban kabia,  
ta asko-nai ez zaran ezker o,  
arentzat itziozu erdia.

Ortzian izarrak dargie,  
basoan kutunak lo-gura,  
sorkaldeko urrezko gurdiak  
ba-dakar goizaldeko agurra.  
Zeu be joan zaituz etxera  
ezkutune dozun lekura  
an goiko areitzaren ondoan,  
bare dakizun gaurko ardura.

Gordetegira iritxi orduko  
sar zaituz tximista alakoa,  
inguruan beti zelatan  
ba-yabiltzu suge gaiztoa.  
Arin ibilli kutuntxua  
gau-atsa makaltzen baidoa,  
ta neuk be egunaren bildurrez  
maite dot nire lo-zuloa

Basoko laguntxu gautarra,  
ni naz saguzar egalaria,  
itsua dan zure abendakoa,  
gabeko eltxoen eiztaria.  
Agindu dauste izan nakizun  
dagokizun begiraria,  
gaitzetik atara zaidazan  
nire lengusu ibiltaria

## ITSAS-ERTZEAN

Etsipenaren atzapar illunak  
ozka dagie nire biotzean,  
bakartasunaren itxaro aztunak  
itoten nabe etengabeko utsean.  
Galdu egin yataz alaitasunak  
lorak antzera neguko ekaitzean,  
ta loaldiko besarkada bigunak  
igesu yabildaz gau itunean.

Laiño artetik dei larriak antzera  
asperenak dantzudaz gau betean,  
joranak dardarrez naroa ertzera  
alabaiñan ezer ez illunpean.  
Lo nagola dagerkit maitebera  
begiz laztantzen nauala isillean,  
orduan laster baten noa atera  
alabaiñan iñor ez lekorean.

Aizea uluka itsaso apartsuan  
arrabita itunen antzera,  
goga aieneka gaba aizetsuan,  
dei larriak ene oroitzen atera.  
Odeiak digaroe lei itsuan  
iparreko lanbrotik legorrera,  
eriotz dizdirak ortzi illunduan,  
zauri biziak neure biotzera.

Eguna ilteko egoan bein batean,  
nire aurpegia laztanduz esaustan:  
Zaitetz emen beti argia itzaltzean,  
itsaso-zear alkartu gaitzezan.  
Ba-naiako arrastiri bakotxean  
ene maitiari dei bizietan,  
baiña ez dot entzuten itsasaldean  
eriotz-antziak baiño itzaletan.

Kaio zuria kresal lumaduna  
oa iparreko laño-izotzetara;  
an yagon nire arrantzale kutuna  
ekarridan ene besoetara.  
Joan azkar itsas-txori bakuna,  
aldiaren igarotze illunkara  
ta etsipenaren aieneka ituna,  
eltzen yataz biotz-erraietara.

.....  
.....  
.....

Ilten da odoletan arrats gorria;  
olatu baten gaillur apartasuan  
ezpanetan izen maite-maitia,  
suntzi da mutilla illobi urtsuan...  
Begietan negan etsi-etsia,  
itxaropena illa gogo-barruan,  
norabage dabil neska bakartia  
mariñelari deika oñaze itsuan.

## ODEIAK URDIÑEAN

Odeiak isillik ziri-zirika urdin zear  
oial-ontziak antzera;  
nor arein besoetan norabarik joango  
ames zoroen etxera...

Igarotzean, gelditzeke laztantzen nabe  
beti iraduz erbestera;  
ene umetaldiko seaska bigun-bigunok  
sar zaiteze biotzera...

Biurtu nagizue ego zuri samurrakaz  
aurtzaroko magalera;  
isuri egistazue oroitzen barru-barruan  
ama zanaren mintzaera...

## ILLUNTZEKO GENTZAN

Bakea gogoan, irribarre ezpanetan,  
galduriko itxaropenak  
jazoera maiteenak  
argiro datozkit illunabar onetan.  
Itzarririk nago oroitzen laiñoetan,  
igarotako joranak  
aldegiñiko laztanak,  
agertzen yatazala erreskada luzetan.

Urrundik yatort kilker baten soiñu zolia  
urrezko argitan kantari  
larradiko begirari,  
irrikan noz agertuko bere maitia.  
Zabaldiko abeslari baltzaran txikia,  
abestu egin ari ta ari  
ikatzeko arrabitari,  
urumatzen nauan zure eresi garbia.

Larrako loreen asperenak aizean,  
neure gogoan laztanak,  
amesak maite joanak  
apa emon bekide polliki igarotzean.  
Bekarstez arrastiko gardentasunean  
gaztaroko ames galduak,  
amaitu bageko orduak,  
ausnartu dagidazan maitero oroitzean.

Zatorkidaz itsasoko apar kresaltsua,  
oztu neure bekokia,  
ken egidazu egarria,  
bioakit au atsegin-gurari itsua.  
Atzamar gardenaz bareidazu gogua,  
ekarstazu barru-argia  
ikus dagikedan egia,  
gogoz egin daidan bideko azken ordua.

Basoak dakarkit urruneko suzmurra,  
biotz illaren soiñua,  
ames galduen zantzua  
edo-ta izandako oiñazeen agurra.  
Igesi bekit zapaltzen nauan bildurra,  
betorkit bake-mezua  
baita kemen ezkutua,  
garaitu dagidan azkenengo gaillurra.

Txindor bati jausten yako azken eresia  
izarrai arren eta arren  
laguna ekar dagioen,  
bakarrik baidago ta guztiz ezetsia.  
Neuk ostera, ba-dot benetako bitxia,  
nekaldiaren atsedean,  
une larrietan euspen,  
eta gaitzaldian argi gozo bizia.

Zer da baiña, gizaseme baten bizitza...?  
Igesi doan itzala,  
zimeltzen dan lore-atala,  
etendako ames zoro baten olerkaritza.  
Doi-doi maitasun-asperen bateko emoitza,  
narraz dabillan orbela,  
illuntzeko argi motela,  
urrutiko laiñotan galtzen dan oroitza.

Zein urrun zagoze bizitzaren zatiak!  
Batzutan nabil negarrez,  
bestetan irribarrez,  
inguratzen nabela itzalak eta argiak.  
Bideko mugan itxiko yataz begiak,  
orduan poz-atsegiñez,  
biotz bete maitasunez,  
naroaian zerura neure Jaun maitiak!



## ERRUBAKOA

Begi urdiñak iñora zuzendurik,  
irriño geldoa ezpan moteletan,  
ortxe zukust beti lez jesarrita  
illuntzerarte ames errugabetan.  
Aulki koloka baten geldi-geldi,  
arkondara zuria tximurretan,  
prakak soka zarpail bataz eutsita  
oiñak yabiltzuzala zabunketan.

Zurrunbillo gaztainkara eratuaz,  
bekokitik ule-galpar okerra  
bekain bateraiño luzatzen yatzu,  
oldozkun itoen estałki ederra.  
Erdiz edegiriko begietan  
agirian dozu ainbat bekerra,  
ta abo loditxutik iradu barik  
lerdea darizu lerra ta lerra.

Irugarren urte bete izan arren,  
oraindiño ezin zabilke, gaisoa!  
Oin aultxuak makurtzen yatzuzala  
ibilli nai ta ezin neure geldoa.  
Min batek aginkatzen zaitunean,  
illuntzen yatzu begirarte osoa,  
ta antzi luzea dan negar itunaz  
botaten dozu aiene etenbakoa.

Eri batek jo izandako adimena  
argia idoro naiean yabiltzu,  
laiño artean bidea agertuko ete  
alabaiña onek beti iges dagitsu.  
Gogoak bide-erdian uts egiñaz  
biurten zaitu adimenerako itsu,  
gure ludi au ederretsi eziñik  
neure biotz-biotzeko kutuntxu.

Jaungoikoagandik zatozan ori  
arranoa izan zeintekiguzana,  
txori eria lez aidean eziñik  
or geldirik zakust neure laztana.  
Beeko lokatzean taibage iraulka  
goietan jarduteko zintazana,  
ezin dozuz egoak erabilli  
lotan baidozu gogo-jorana.

Gurasoentzat zauri sendaeziña,  
betiereko daroen lor aztuna,  
negarrez sarri laztantzen dautsue  
aurpegitxu margul eta biguna.  
Ez daikezu ulertu arein naigabea  
ez eta zугanako maitasuna,  
baiñan arein txerak dozuzanean,  
ai orduan biotzeko zoruna...!

Enparauek jaromon andirik ez;  
igeskorra dan eskuko igurtzia,  
utsean ezabatzen dan so ariña  
edo bidari baten barru-antzia.  
Zu zaitugu bai argi ezain urria,  
iñora eltzen ez dan eresi itzia,  
iñoiz zabaltzen ez dan irriñoa,  
bakardadeko adimen ezetsia...

Kaiolan beti espe txori gaisoa,  
txerak dozuz biotz-betegarria,  
bazterpen ta bakartasuna ostera,  
laztan irrikatuen egarria.  
Negar-adurretan bizitan zear  
orke txokoan etenbage aantzia,  
iñoiz egin ez zenduan obena  
gaiñezka ordainduz ume errukarria.

Itzalen artean zagoz maite ori,  
basoko lore ezkutatu laztana,  
baiña aintzat artua izan ez arren,  
taigabe dariozu usain bakana.  
Gogo garbi baten gorako irrika,  
errugabe baten oiua dana,  
ortzitik doan egada goitarra,  
Aitaren etxerako dan jorana.

Urdiñari begira geldi-geldi,  
illunabar bateko magalean  
aingerutxuek eroango zaitue,  
Aitak besoetan artu zagizan.  
Orduan gaillen agertuko zara  
itzalieziñeko edertasunean,  
gogoa iñoiz zitaldu ez dozulako  
gaiztakerien lokatz zikiñean...

## NORABAGE

Bidetik noatzue illunabarrean  
gogoa negarretan  
biotza naigabetan,  
jabetzen nauan istura ito naiean.

- Iturri-ondoko ur-ekarle zoragarria  
neure maite laztana  
zu zaitudan jorana,  
bareidazu kiskaltzen nauan egarria,
- Mariñel txairo batek eroan daust gogoa,  
espe dago itsasoan  
betiko aren ondoan  
neure bidari bakarzale gaisoa.

Gabeko illunpean darraiot bideari  
gogoa negarretan  
biotza naigabetan,  
asperenka beti urrutiko zeruari.

- Begi illunetako ene errotariñe ederra,  
ibarreko lorea  
niretzako adorea,  
ken egidazu daroadan min ankerra.
- Artzain lerden atzetik doakit biotza;  
katigu dot mendian  
artaldeko iturrian,  
tamala dautsut benetan, bidari arrotza.

Barrero ekiten dautsot bide isiltsuari  
gogoa negarretan  
biotza naigabetan,  
leiatzen dodan bakea arrenka gauari.

- Begi urdiñetako gorulari maitia  
zu nire itxaropena  
basadiko asperena,  
irun eidazu gogoan ames eztia.
- Barruan sakon sartu yat aizkolaria;  
ba-nozu goruetan  
illuntzeko orduetan;  
jarrai bideari betiko ameslaria.

Ostera galtzen naz bideko argi-itzaletik  
gogoan negarretan  
biotza naigabetan,  
barruko egarri bizia baretu eziñik.

Norabage noa oiñaze mingotsetan  
maitasun zoro-billa  
jorana betiko illa,  
alderrai noala bidetik amesetan...

## DIAMANTE ILLUNAK

Begi urdiñen isekak ditut  
sastakai zorrotzak gau oro,  
maitasun-zauriak sakonduz  
odola daridala oparo.  
Espetxeko gau aztunetan  
beñazalak itxita gero,  
ezustean agertzen yataz  
begiratzen daustela irriro.

Neugan aspaldiz untzatuak,  
zeru garbiko begi ederrak  
maite nebazan etsi-etsian,  
aizea lez txori goiztarrak.  
Maitasuna eskintzen eustala,  
urrun ginduan guda ankerrak,  
azkenengoz bere argi urdiña  
ekarkidala illunabarrak.

Leioko burni itogarriak  
untzatu yataz gogoan,  
txoria lez kaiolan espe  
etenbako oiñaze zoroan.  
Maite-maite neban kutunak  
zapuztu ninduan beingoan,  
salduta, etsia nagola  
bakartasunaren laiñoan.

Illuntzea arrausika dator  
arrastiriko isillean,  
oiñazeturiko gogoak  
atseden gura dauanean.  
Loretu bediz ene amesak  
sukarrezko irudimenean,  
urrun bekidaz naigabeak  
suntziturik zeru ederrean.

Ezuztez, amesak urratuz  
ba-dantzut irri burrunbari,  
isiltzen ez dan barre-algara,  
bein eta barriz isekari.  
Ezpata gorria bai'litzan  
ekiten dautso biotzari,  
lengo zauri bizi-bizia  
sakontzen yatala ari ta ari.

Illundietan dizdiraka,  
yopuegille diran izarrak  
zeru-arriak antzo gabean  
so dagiste anker eta ederrak.  
Begizatzen nabe destaiñaz  
aspaldiko begi otz arroak,  
etengabe aditzen dirala  
erdeiñuzko barre-santzoak.

Izerditan iratzarri naz  
soiña dar-dar izugarrian;  
ats-estuka yabilt arnasa,  
biotza pil-pira bizian.  
Gabeko ats goibel ozkirriak  
baretzen nau goizalde-irian,  
argiabarraren azkonak  
illuna uxatzen dabenian.

Oiñazea dot lagun miña,  
zorotzen nabe egun-argiak,  
eta illuntzea asten danean,  
gogoan maitasun-zauriak.  
Bai mingotsa geldi bear au,  
arimaren ames biziak  
gaillurretara egan eziñik,  
neure biotzeko txoriak!

Narrazka naroa adu ankerra,  
itzaletan yabilt bizitza,  
ekaitz-besoetan galduta  
arindu eziñik nire gaitza.  
Leioko burdiñen artetik  
dagerkit gau-olerkaritza,  
bakea dario ortziari  
negarretan dodala oroitza.

Bart amesetan nengoala,  
lenbizi aul, gero indartsua,  
begi sakon illunen txerak  
laztan ninduan maitetsua.  
Oiñazkarrak jota bai'litzan,  
begi urdiñen irriño itsua  
ezabatu zan urrutian,  
aditzen zala aiñen-oiua.

Gerizpeko aurpegi batetik,  
begi eder luzaranak,  
niri zuzenduak egozan  
jaurti ta jaurti argizko andanak.  
Edertasun isil-isillaz,  
begi illunakara arein laztanak  
so egin ninduen lagunkiro  
errukiz gaiñezka ta otzanak.

Begi ederrok, zuek zarie  
ekaitzean itsas-argiak,  
aulerian lagun zintzoak,  
lorraldian izar maitiak.  
Zatorkidaze gau orotan,  
uxa begi urdiñen irriak,  
biurtu nire biotzari  
len galduriko pozkariak.



Ezin dagiket ondo ikusi  
begien osteko aurpegia,  
baiña barruko senak diñost  
ba-dodala lendik ikusia.  
Begi andietako aingerua  
izan zeitekidan zoria,  
ondotik igaro nintzaizun  
ta ikusi ez, neure maitia!.

Ezkuturiko loretxua,  
ur nenbiltzun ta ez ikusi;  
erizuzan antzi usaintsuak  
ez neutsazan neuk ederretsi.  
Ni bai ameslari zoroa,  
urre izuna zearo onetsi,  
ta diamantezko txirlarriak  
itsu baten antzera ezetsi!

Egun baten yadanik jarei  
zu idorotzearren maitia,  
billatzen asiko natzaizu  
zu nire itxaropen guztia.  
Ene besoetan artuta  
gozatuko dot zure argia,  
ta mosuz itzaliko dautsut  
begi illunen dizdir bizia...!

## JAGON EGISTAZU...!

Jagon egistazu Jaun Andia  
begira dodan ama maitia.  
Ni bai zoroa  
ta eskerbakoa,  
amar urte dira neuk itzia  
bizi dala bakar eta etsia!

Dardarrez besarkatu ninduan  
arratsalde goibeleko orduan,  
bera negarrez  
neu irribarrez.  
Itxaropenaz alde egin nuan  
murgilduta amesezko zeruan.

Aren bizitzaren zati onenak  
gogoaren oldozkun zuzenak,  
niretzat ziran  
maite-pilpiran,  
baiña nire txera zekenak  
ordaindu ez bere ardurapenak.

Atzerrira ebatzi nebanean  
bearrezko dirudik ezean,  
gordeta ebana  
niretzat dana,  
eta eskerbagetasun betean  
axe be kendu neutsan joatean.

Aldendu nintzan ames utsetan  
gogo bete diru-egarritan,  
ni bai zitala  
eskerga utsala,  
itzita ene itxaropen zorotan  
maite ninduana, negarretan!

Lanean atebage ari ta ari  
dirua jaritsi dot ugari,  
baiña barnetik  
ez dot bakerik;  
ama itzia dakust arrenkari  
dei egiñez seme urrutuari.

Neugaitik janasiko oñazeak,  
nire saldukeri izenbageak,  
musu makalan  
masail argalan,  
urterik urte, sakon, ankerrak  
ildaskatu dabez naigabeak.

Nire alde isuritako negarrak  
gorritu dautsoez begi igarrak;  
ni aztukorra  
seme doillorra,  
noiz etorriko ete nire izparrak  
ta nik itzali ez bere min-garrak!

Aren ule meatzeko burua  
biurtu da betiko negua;  
isuri neban  
gaba luzean  
edurrezko jario izoztua,  
eskerbagetasun itsu-itsua.

Zein makurra lengo soin txairoa,  
zein erkiña eusten ninduan altzoa;  
ama neuria  
maite-maitia,  
nik okertu dautsut soin osoa,  
nik mindu zaitut ene gaisoa...!

Jagon egistazu Jaun Andia  
begira dodan ama maitia,  
itxaron-larri  
beti ene atzarri.  
Kenduidazu daukadan guztia,  
baiña gorde, arren, bere bizia!

Idoro nai dot galdu nebana,  
gaisorik daukat maite nauana;  
aize-egoetan  
itsas-gaiñetan  
ontziak naroa beragana...  
Itxaron nagizu ama laztana!

Negar itunaz yabilt goga,  
arrenkurak dardarrez naroa,  
oñaze andia  
nekaldi etsia,  
neure diru-zalekeri eroa  
izan da amaren negar-aroa.

Jagon egistazu Jaun Andia  
begira dodan ama maitia,  
ikusi daidan  
nire pozkidan,  
bere aurpegian udabarria,  
begietan zorion-argia...!

## GALDU NEBAN...

Negu itunak zaurituriko txoria,  
argi-miñak jotako abeslaria,  
illuntzeko besoetan  
ikusten zaut negarretan.  
Neu nozu oroitzak jotako ameslaria,  
biotz eriaz dabillan bidaria,  
kemena dot illunetan  
goga antzi bizietan.

Elduko yatzu nozbait udaberria  
baso ta zelaietako ereslaria;  
ikusiko zaut orduan  
maiteño baten atzean.  
Niretzat baiña ez da izango alaigarria,  
itzali yatan maitasun-egarria,  
maitia galdu baineban  
udabarri eder batean.

## SEASKA KULUNKAN

Ama batek seaska-ondoan  
seintxua kulunka darabil;  
biotzetiko urrezko urruma,  
ezpanen laztan egoduna,  
izarretaraiño artez doa  
ekaitz orrularian zear...

Seaskan dagoan kutuna  
ezin dauz begitxuak itxi,  
bai gabaren zakartasuna...!

Mundu itun batetik zatozan  
gabeko aize orrularia  
illunpeko zigor gautarra,  
baretu zure abots zakarra,  
seintxua ez iratzarri,  
ez il lore baten amesa...

Neure biotzeko kutuna,  
ama baten itxaropena,  
igesi joan da aize illuna.

Euri-jasa lodi gogorra  
danbolintari goibel ori,  
zoaz ortik ariñeketan,  
ostendu zaitetz illunpetan,  
seintxua iratzarriko ba'litz  
txindorra ilgo litzakigu...

Neure biotzeko kutuna,  
amatxuren argi bizia,  
urrun joan da ekaitz ituna.

Mendiko abeslaria zaran  
lats orrulari asarrekoa,  
urrundik dakartzun didarra  
biur bedi eresi gautarra;  
seintxua izutuko ba'zendu  
gauak negarrak lisurikez...

Neure biotzeko kutuna  
amaren bitxi eder-ederra,  
baretu da aren oiartzuna.

Ur gelditako abeslaria  
potxingoko igel ezkutua,  
abots latzeko mezularia  
isilduizu gau-eskaria;  
seintxua artegatuko ba'litz  
iia zimelduko litzake...

Neure biotzeko kutuna  
amaren artizar garbia,  
ostendu da abeslari aztuna.

Atadiko txakur ernai  
gure jagole zintzoa,  
itzi iretargi bakean  
sartu zaitez etxean;  
seintxua ikaratuko ba'litz  
izar goitarra ilgo litzake...

Neure biotzeko kutuna  
amaren pozgarri betea,  
isildu da zaunka izuna.

Etxurreko tantai sendoa  
basetzeko begiraria,  
jaulkitzen dozuzan uluak  
biurtu bekizuz soñuak;  
seintxua larrituko ba'litz  
sorgiñak poztuko litzakez...

Neure biotzeko kutuna  
amaren gurari atsegiña,  
otzandu da gure lertxuna.

Lotan dago nire seintxua.  
Izarren antzi urrundariak  
eta aingeruen begi otzanak  
bekartsoez zeru-laztanak;  
intzaren malkoen artean  
gaba diamantez jantziten da...

Neure biotzeko kutuna,  
lekorean dana isillik  
ta zeugan nire maitasuna.

## ITURRI - ONDOAN

Basoan galduriko iturri gardena,  
mendian beera zoazan asperena,  
nire itxaroen lekuko garbia,  
esaizu non dagoan nire maitia.

Joan yatanetik  
ezin naz ni bizi,  
billa nabil beti  
munduko bidetik.

Zidarrezko bertsolari menditarra,  
baso-zelaietako amesen aparra,  
zure ur garbitan eder eta argia  
agertu yatan bere zeru-arpegia.

Non zagoz maitia  
nabil didarrez,  
gogoa negarrez  
gau ta egun etsia.

Lertxun dardartsuen arteko aldarria,  
nire oroitz galduen altzo eztiagarria,  
esan eidazu zergaitik galdu nuan,  
zergaitik enetxuak itzi ninduan.

Galdu nebanetik  
ez dot bizi gura,  
au ene illundura  
beti bera barik!.

Aldatz beera zoazan mendiko negarra,  
ames galduen entzule bakarra,  
zure ondoan aren nini baltzaranak  
begiratzten ninduen otzan-otzanak.

Zoro biurturik  
nabil illunetan,  
beti naigabetan  
beti argi barik.

Mendiko intzaren alaba kutuna,  
nire ildako itxaropenen oiartzuna,  
esan nora urrundu zan illuntze aretan,  
zergaitik itzi ninduan oiñazetan.

Batzutan didarrez  
bestetan etsia,  
oi ene maitia  
beti nozu miñez!

Basadiko iturritxu suzmurlaria,  
zugandik datorkit oiurundaria,  
pairamena darion antzi galdua,  
eriotza dakarstan aizeko ulua.

Illa dot biotza  
gogo miñetan,  
gabeko isilletan  
dantzut eriotza

.....  
.....

Bide itzaltsutatik joan zan gaisoa,  
billa ta billa eziñeko ames zoroa.  
Arnabar zurizko illobi baten datza  
ego dardartizko tximeleta aratza.

Izen bat aboan  
il zan ari ta ari,  
zu ziñan bidari  
bere azken gogoan...



## BILLA NABIL

Begi ederren billa  
nabil arratsean,  
zeruari arrenka  
gabeko miñean,  
goizaldean barriz  
basoko isillean.

Ames egin neban  
arima barruan,  
neureak zirala  
gaberdiko orduan,  
galduak barriro,  
ai ene, goizean!

Izar isiltiok  
zatozte neugana  
izan zakidaze  
argizko laztana  
idoro dagidan  
maite izan nebana.

Intzaren altzoan  
nabil nora barik,  
guztai itaunka  
non ete diranik,  
baiña ez dot izaten  
arein erantzunik.

Udazken-zerutik  
iraduzko bidaiari,  
egoa agertu zan  
orbelen garaian,  
beti lez orruka  
odeien jarraian.

—Ikusi ete dozu  
bi izarren pilpira  
gabean galduta  
iparrantz begira?  
Arein billa nabil  
neureak baidira.

—Ikusiak ditut  
izarren dizdira  
basoko bidean  
intzira ta intzira,  
zeu noiz etorriko  
gabaren begira.

Idoro nebazan  
bidezkako ertzean  
txirlarri biziak  
ortzi gardenpean,  
ta sartu yatazan  
gogo-biotzean.

Kutunena dodan  
ene maitiari,  
pozik noakio  
mundutik kantari:  
ni nozu enetxua  
bideko ameslari.

## BOST MALKO

Il zan erriko baztertua  
arrastiriko argi-itzalean,  
joan zan guztiek itzita  
eguna suntziten zanean.

Erren jaio izan zan gaisoa,  
gorputzez lepo-biurria,  
biotz-biotzez maitekorra,  
goi-arnasez ameslaria.

Beti laguntxuak irrikan  
erre izan eban biziera,  
maitasuna ezagutu barik  
zaurituriko txori antzera.  
Oatze baten illik zetzan,  
iñor ez, baiña, gelatxoan  
errentxua obiratzeko  
bere ama zanaren ondoan.

Ezkutatu ziran izarrak,  
negarra erion gabeari,  
mendiko tantaian artean  
mifnezko uluak aizeari.

Bost edurrezko aingeru  
illargi-izpi baten ganean,  
umeagana jatsi ziran  
goizabarra egiten zanean.

Lore-atalezko orgatxu baten,  
egakada bizi-bizian  
eroan ta lurpetu eben  
bere ama zanaren obian.

Bost musu bigun jarri ebezan  
obi-buruko gurutzean,  
bost laztan errentxuarentzat  
zeruetara biurtzean.

Iparraize suzmurlariak  
lertxun dardartien artean,  
bost intziri jaurti ebazan  
illobitik igarotzean.

Aiene mingotsen artean,  
oparitzat mutikoari,  
bost apar isuri yakozan  
itsaso naigabetuari.

Eguzkiak urrezaturik  
arrats-beerako eriotzean,  
bost dizdir agertu ziran  
illarri bakarti-gaiñean.

Izarren oiñaze mingotsak  
negar-gurea eutsi ezifnik,  
bost iñontzezko txirlarri eder  
jarri ebazan isil-isillik.

Gaberdiko gentzan polliki,  
txindorrek pairamen bizian  
bost eresi eskiñi eutsazan,  
bost urre-asperen ozkarbian.

Obi-ondotik igarotzean,  
antziz joian bidariari  
bost malko iges egin yakozan,  
bost otoitz isillen mirari...

## OLERKIA DA...

Osto bat dardar bizian  
arrenka aize bigunari,  
etor dakion kantari  
basoko ames orlegian.

Guztiari irri-barreka  
pozez lertzeko zorian,  
leiarrezko jaustirian  
suzmurka doan erreka.

Goizeko azkon gorrikara,  
lo dagoan txoriari  
argi-deiaz ari ta ari  
esna daiten bizitzara.

Ibarreko odei-gaiñean  
jagiten diran gaillurrak,  
eguzki-laztan samurrak  
artzearren goizaldean.

Eriotzaldi isillean  
galduta bere kutuna,  
ezabatzen dan eguna  
illuntzeko magalean.

Idi sendoen atzetik  
"aida"ren didar ozena,  
biotzaren itzaropena  
ereintza-lan amaiturik.

Laiño artetik galdu zan  
maitasun baten agurra,  
zartzaroaren suzmurra  
nekaturiko gogoan.

Illargi-izpi baten txera  
basoko zidor-ganean,  
gaba makurtzen danean  
eguzkiaren aldera.

Seintxuaren ezpanetan  
sortzen dan irri-barrea,  
ames garbien lorea  
ama baten besoetan.

Barrutik begietara  
antzika doan malkoa,  
biotz-ondoko garoa,  
naigabe baten dardara.

Joandako itzaropenak  
atzoko utsean galduak,  
urrundu ziran orduak  
gaur itotako asperenak.

Ibiltari bakartia  
munduan zear alderrai  
taibage billatuz nonai  
bere amesaren maitia.



## ASKATASUN EGUZKIA

Erori zan zeruari begira  
bizitzaren udabarri betean;  
izadiko eresiak laztanduta  
amildu zan mendiko gaillurrean;  
itxaropenaren lorea antzera  
joan zan eguna ostentzen danean.

Ez billatu gudaria,  
bera da aberriko zeruan  
goizalde oro jagiten dan  
askatasun eguzkia.

Ozkorriak samur besarkatu eban  
arrats beerako jantzi gorrimiñaz;  
gabak ezkutatu eban maitekiro  
asperen baltzaranak isuriaz;  
egutaizearen suzmur eztiak  
seaskatu eban eresi bigunaz.

Ez billatu gudaria,  
bera da aberriko zeruan  
goizalde oro jagiten dan  
askatasun eguzkia.

Eguneko goizabar argitsuak  
gau-errezelak uxatuta gero,  
esku errukiorrak obiratu eben  
udabarriko goizean maitero,  
miñaren-miñez obi bakartia  
laztantzen ebela bein da barriro.

Ez billatu gudaria  
bera da aberriko zeruan  
goizalde oro jagiten dan  
askatasun eguzkia.

Obi-gaiñean olezko gurutza  
urrutiko itsasoari begira;  
bestaldean larrosa gorrikarra,  
joana dan biotz baten pilpira;  
ozkarbian ke-aztarnak antzera  
ames urdiñak ezabatzen dira.

Ez billatu gudaria,  
bera da aberriko zeruan  
goizalde oro jagiten dan  
askatasun eguzkia.

Sentipen larriaz begira dago  
etxean geratu zan neskatilla,  
ai! baserriko uso laztangarria!  
Joan zan betiko zure mutilla;  
mendi garai bateko obian datza  
munduak aztuta, geldi ta isilla.

Ez billatu gudaria,  
bera aberriko zeruan  
goizalde oro jagiten dan  
askatasun eguzkia.

Sutondoan, malkoak agortuta  
gurasoak dardarrez otoiñean;  
naigabeko otzak jota zarienok  
gorde semea zuen oroitzean,  
Aberriak beretzat nai izan eban  
egun-argiaren eriotzean.

Ez billatu gudaria,  
bera da aberriko zeruan  
goizalde oro jagiten dan  
askatasun eguzkia.

Negarrak darioz izadiari,  
baso-tantai lerdeneri intziriak,  
ortzian odei arreak igeska  
miazkatzen dabez goiko mendiak,  
eta aberri-miña jabetu ezinik,  
biotzean daroa bidariak.

Ez billatu gudaria,  
bera da aberriko zeruan  
goizalde oro jagiten dan  
askatasun eguzkia.

Entzun egistazu aberri neuria,  
joan yatzu seme laztana,  
baiña ama-lurraren alde jagirik  
eriotzera bideratzen dana,  
arbasoen etxalde goibelean  
ereintzen ari da bizi-jorana.

Ez billatu gudaria,  
bera da aberriko zeruan  
goizalde oro jagiten dan  
askatasun eguzkia.

## ATSOTXUA

Igaro da itzal ezaiña langoa  
soiñeko baltzaz jantzita gaisoa,  
esku igarrak dardarrez,  
gogo bete naigabez,  
masaillean malko baten ildoan,  
ezpanetan keiñu samin itoa.

Atzo eguzkia, gaur illunabarra,  
bizitzan zear galduriko izarra,  
goizeko argi bizian  
lore yaukala izan zan,  
gaur ostera giza-irudi txatxarra,  
aienatzen dan iratxo kaxkarra.

Urrats neketsuz doa goiztirian  
kalean beera oiko ibillaldian,  
betiereko joana  
aspaldiko jorana;  
ames ederretan egun sentian,  
itxaro barik, ai ene!, arrastian.

Munduko gauzentzat adore barik,  
aren lillura ez dautso ardurarik,  
Jaunaren altzo eztian  
bizi da bake andian,  
ondo baidaki, bidea amaiturik  
begira dauala beso-zabalik.

Galduta elizaren erditzalean,  
an dago etenbageko otoitzean,  
berarentzat ezer ez,  
dana besteen alde;  
bizi diranak ditu biotzean,  
joan ziranak betiko oroitzean.

Bizitza erein eban bidai luzean,  
eriotza ezautu biotz betean;  
irri-barre ta lorak  
atsekabe ta lorrak;  
gaztaro-ames maitiak zein atzean!  
Oiñaze ta zauriak zein aurrean!

Sei kimu emon eutsazan munduari,  
arimaren sei zati urrumalari;  
zoroki maite zituan  
biotzaren zeruan,  
eta bizitzan zear ari ta ari,  
uko egin eutsan bere buruari.

Egun arre-illunak, gau zuriak,  
geisoen ondoan ordu larriak,  
etxean sendalari,  
kanpoan begirari,  
sarri askotan atsekabe andiak,  
iñoz ez, ordea, atsedeen-aldiak.

Senarra il egin yakon alpaldian,  
gero, seme bi guda basatian,  
iru zauri biziak,  
iru negar etsiak,  
beretzat zorionik ez ludian,  
itxaro bakarra, goiko aberrian.

Neke gorrizka begi moteletan,  
oiñaze sakona ezpan ertsietan,  
sutondoan itzalak,  
gogoan bizi-atalak,  
eskuak agurtza baten aletan,  
oroitzak urruntasun-egoetan.

—Jauna —diño—, eroan naizu jadanik,  
biziek ez dabe neure bearrik,  
ain maite nebazanak,  
neure kutun laztanak,  
dei egiten dauste zorionetik,  
arrenka dantzudaz etenbagerik.

Eta goizaldeko bake betean,  
Jaunak artu eban bere magalean.  
Aztu egindako atsoa,  
etxeko otsein gaisoa,  
irri-barre zoriontsua aboan  
iñozkorik ederren zetzan oean...

.....  
.....

Goizaldean galdu neban  
biotzeko ama laztana,  
bakean urrundu yatan  
niretzat bizi izan zana.  
Neure maitasun osoa  
yoakidan beragana,  
konturatzean, ai ene!  
betiko galtzen nebana.

Azken laztana emoteko  
makurtu nintzan negarrez,  
baiña bizitzan lenengoz  
erantzun eustan isillez.  
Adierazo gura neutsan  
gogo-biotza dardarrez,  
zein zoribakoa nintzan  
itzaliezifneko oiñazez...

## NEURE ZIDORTXUA

Ikusi neban barriro be  
illunabarko itzalean,  
ikusi neban azkenengoz  
bizitzaren udazkenean,  
eta biotzetik begira  
jario baketsu isillean,  
negar mingotsa etorri yatan  
neure zidortxua ikustean.

Ekarri eustazan gogora  
txiribiri ederren margoak,  
elarraren usain biguna,  
txorien eresi gozoak.  
Eguzki-dizdira nenkusan  
baita ertzeko bedar ezoak,  
eta ortziaren oztifnean  
odei bidarien ildoak.

Billoetan ebilkidazan  
zabaldiko aize-laztanak,  
eta izaera-barruan  
umetaroko ames joanak.  
Urteen zear yatordazan  
neskato baten begi otzanak,  
eta bizitzako arantzetan  
geratu izandako joranak.

Arrats-beerako altzo odolduan  
laguntxuen didar biziak;  
atzo-miña neure gogoan,  
ezkutuan, oiñaze-antziak.  
Mundutik lekutu zarien  
aspaldiko lagun maitiak,  
itzi daustazuez, ai ene!  
osatu-eziñeko zauriak.

Jesarri nadin zure alboan  
aurtzaroko zidor itzia!  
Ez da ezerk bete dagikedan  
sentitzen dodan uts andia.  
Une batez zeugaz gura dot  
neure atzoko oroitzen kabia,  
bare dakidazan malkoak  
eta ariman dodan zauria!

An-emen yabildaz oroitzak  
gogoaren erdillunean;  
bidetxuan argi ta itzalak  
erditzalak neure barnean.  
Irri-barrez eta negarrez  
ibilliko naz bizitzean,  
baiña zu, zidortxu neuria,  
eroango zaitut biotzean...!



## BASETXE ITZIA

Ikusi dot geldi-geldi  
mendiko basetxe eria,  
ikusi dot bide-ertzean  
kabi-miñaz etsi-etsia.  
Bakarrik dago gaisoa  
baso-zelaiko bitxia,  
bakarrik dago, ai ene!  
Euskadi'ko arri bizia.

Lekorean orma zaarrak  
barruan illuntasuna,  
aizearen uluetan  
neguko kadentasuna.  
Arbaso-lurran negarrak,  
biotzetan oztasuna,  
odei baltzak gaillurretan,  
gogoan bakartasuna.

Lertegi illunean zear  
zaldi baltzen irrintziak,  
azkzalpean ondatuz  
etxaldeko lur aantziak.  
Eriotz-zurrunbilloan  
bela itunen karrasiak,  
sustarretik ito naiez  
euskeraren ots garbiak.

Leio illunak dirudie  
garezur baten zuloak  
itxaro barik ikustatuz  
triskaturiko soloak.  
Aurpegiko orbanak lez  
etxaurrean zauri naroak,  
egunen jarraigo ankerrak  
itzi zituan ildoak.

Ostendu egin da bidea  
asunen itzalak itoa,  
aspalditik artu eziñik  
apatxen laztan gozoa.  
Antxiñatik ez da entzuten  
beien ibilte geldoa,  
zelaietan jatearren  
aroko bedar ezoa.

Orma sendo zaarrak  
untz zimelak ezkuuak,  
orlegizko jantzipean  
geldi-geldi ta mutuak.  
Arrizko oiartzunak dira  
barre ta negar aztuak,  
oiñaze ta itxaropenak  
jadanik ames galduak.

Aize ankerrak erauzita  
teillak egaz joan ziran,  
ekaitzaren besoetan  
lili gorriak bai'liran.  
Barrunbe ustel itunean  
eriotzezko pilpiran,  
lurperatu da euskerea  
isiltasunezko obian.

Kebidean beera uluka  
aize-asperen itzaltsuak,  
piztu naiean alperrik  
aspaldiz ildako suak.  
Biotzari min dario,  
begieri malkoitsuak,  
aditzen dirala an-emen  
asaben urrats galduak.

Etxeko utsa sentitzean,  
ganbarako uso zuriak  
aldendu ziran betiko  
urruntze-miñaz eriak.  
Aizean aditzen dira  
oiartzun erostariak,  
bakar-miñak sorturiko  
aiene urrumalariak.

Ez ditu laztantzen orain  
errekatxu kantariak,  
neska ameslariaren  
begi yaukalen niniak.  
Mendi-beera galdez doa  
non diran izar maitiak,  
suzmurka dariozala  
apar zurizko intzirriak.

Mendi-mendian itzala  
aizean illen didarra,  
biotzean naigabea  
gogo-barruan negarra.  
Lertegi illunak itota  
ustu da kabi goitarra;  
uriko dizdir ustelak  
isildu dau etxe zaarra.

Illuntzean ostendu da  
eriotzean etzana  
baso-zelaiaren lorea,  
mendiko bitxia zana.  
Len euskaltasun-seaska  
orain aztutako orbana,  
au atsekabe larria  
basetxe maite laztana!

Negarretan zakust  
aberri neuria,  
aspaldiz baidozu  
gogoa eria.  
Semeak joanda  
eta utsik kabia,  
il-zorian dozu  
euskera bizia...!

## MAITALEAREN EGOAK

Urrun-miñezko ego zabal ariñak  
arrenka eskatu ebazan maite-miñak,  
leiar biziko egoak,  
ames ariñako eroak,  
goizaldeko argiak baizen urdiñak,  
izar baten asperenaz egiñak.

Jabetu eziñik maitasun-jorana  
goizean eldu zan maiteagana.  
Oi begien argiak,  
ezpan gorri-gorriak!  
—Ekarstazu baso-lora bakana,  
oianeko erregiña baltzarana.

Maitasuna oianera joana,  
idoro eban loretxu baltzarana,  
illunezko antzietan  
oi bezela amesetan.  
—Ez nagizu il, nire egozun lastana,  
ur baiyabilt intzaren mosu otzana!

Lorea odolgetzen zala bidean,  
biurtu zan goizaldeko isillean;  
illa egoan lorea  
basoko errubagea.  
—Larri nozu gaba datorrenean,  
ekarstazu urretxindorra illuntzean.

Ariztian idoro eban txoria  
basoko gentzaren abeslaria;  
amaitzeko zan eguna  
negartsu ta ituna.  
—Ez naizu eroan egodun maitia  
urbil baidantzut gau-antzi isiltia.

Txoria atsanka joiala esku-arrean,  
biurtu egin zan illunabarrean,  
baiña zoribakoa  
iritxi zan itoa.  
—Ekarri egistazu aida batean,  
izar baten dizdira gau betean.

Izarren antzik ez zeru illunean;  
ara non epertargi bat bidean,  
gabeko ibiltaria  
argi otzen miraria.  
—Egoduna, itzi nagizu bakean,  
laguna dot begira ereiñotzpean.

Sakelean sartuta argi orlegia,  
joan zan zerutik egalaria,  
baiña gau-krisaillua  
eldu zan itzaldua.  
—Zure egoak gura ditut maitia,  
bete eidazu au nire guraria.

Emon eutsazan ego eder urdiñak  
izar baten asperenaz egiñak.  
Egalari gaisoa  
maitasunaz eroa!  
Arein orde z orban bi gorrimiñak,  
zauri izugarriak jasan eziñak.

Maiteñoak pozez ler-agiñean,  
laster idoro ebazan illuntzean  
urretxindor lastana,  
loretxu baltzarana,  
eta eguna gau biurtu zanian,  
izar baten dizdira zeru garbian

Zorionez gaiñezka biurtzean,  
maitalea ikusi eban bide-ertzean  
begiak idegirik,  
soiña bizibagerik,  
saietsetatik isurtze isillean  
odola eriola ari amaibagean...

## DEIKA NABILKIE

Bizitzan zear galduak  
non zagoze oroitz neuriak,  
non arukitu berrero be  
joandako ene maitiak!  
Eguzkipean bai'liran  
dakustaz atzo-zatiak,  
bidean galdu yatazan  
nigandiko atal biziak!

Ezusteñ dagerkidaz  
loaren itzalen artean,  
gogoñ alderrai doala  
orbel zoroñ bai'litzan.  
Begiratzen dauste astiro  
arimaren argipean,  
urreratzen yatazala  
gabeko bake isillean.

Nire ondoan jesarrita,  
arein begien laztanak  
arintzen daustez polliki  
zauritzen nabem joranak.  
Sentipen garaitezifñak  
daragie nire ezpanak,  
betirako gorde naiez  
neureak izan ziranak.

Ondoratzen natzakie  
gogo-biotza dardarrez,  
besoak zabal eginda  
zorion biziz negarrez.  
Baiña besarkada orduan  
utsa daurkit ustekabez,  
izten nabela bakarrrik  
nire oroitz eta naigabez.



Etor dakidazan barriro  
deika nabilkie etsia,  
aditzen dala soillik  
nire biotzeko antzia.  
Au atsekabe samiña,  
neure irrika jadetsia,  
ostera bakarrik nago  
gogoa miñez eria!

Neure argi bizi-bziok!  
gaua sakontzen danean,  
barriz billa noatzue  
amesen ludi ederrean.  
Gorputz bageko bizitzaz  
zatorkidaze ezustean,  
baiña zuekana orduko  
galtzen zaiataze utsean.

Bidean zear galduak  
non zagoze oroitz biziak,  
gau ta egun deika nozue  
biotzeko ene maitiak!  
Ekar beistaz eriotzak  
betiereko ego garbiak,  
bere dakidazan noizbait  
nire arimako egarriak...!

## TXINDORRA TA BIOK

Negarrez dago txindorra  
suzko aiene bai'litzan,  
negarrez dago gaixoa  
illuntzeko gentzapean.  
ozkorriko odol bizia  
jarri yako bularrean,  
pairamena gorde eziñik  
minduriko biotzean.

Mendian beera polliki,  
maitemiñezko eresiak  
aizearen suzmurrean  
egan doaz etsi-etsiak.  
Arratsaldeko il-orduan  
bere sentipen eriak  
itoten dautsoz, laztana!  
goizaldeko nai biziak.

Biotzean dauz negarrak  
erostak sama urratuan,  
eta ortziko gorrikara  
bular txikitxu andituan.  
Eresi bakar itzia  
illunabar odolduan,  
maitasunezko intziria  
arrats-beerako zeruan.

Negarrez dago txindorra  
suzko aiene bai'litzan,  
negarrez dago gaixoa  
illuntzeko gentzapean.  
bizi-atsegiñak galdurik,  
biarko eguna argitzean  
illotzik ágertuko da  
zauri andia bularrean.

Txindorraren oiñazeak  
amaitu dira goizean,  
baiña nire naigabeak  
geitzen yataz barrenean.  
Egunoro il-urrenago  
arrastiriko isilllean,  
atседena idoro eziñik  
gauko asperen illunean.

Eziñezko maitasun batek  
itxaro barik naroa,  
ilten nazala bizirik  
bizi nazala zoroa.  
Oi nork txindorrak bezela  
idoroko bake osoa,  
irrikan billatzen dodan  
azkenengo lo gozoa...!

## ILLOTSA

Mendian gora astiro  
zabaldian galdurik,  
joale-otsak yatordaz  
urrutiko ibarretik.  
Intziri itunak dira  
isturan eortzirik,  
leun datozen erostak  
beste ludi batetik.

Barrutik lekorera  
negargura larrian,  
zerbait igesi yoat  
egazkada bizian.  
Malko bageko antziak  
dantzudaz urrutian,  
sentitzen dodazala  
biotzaren erdian.

Joan yataz utsean  
itxaropen zoroak,  
eta gaur nire amesak  
galdu dabez egoak.  
Maitasuna erail dauste  
aldiaren laiñoak,  
isillik daridazala  
oroitzezko malkoak.

Baratxe sartzen yataz  
zabaldiko bakean  
joaleen negarrak  
biotzaren miñean.  
Lore zimelak dira  
joandako urrunean,  
asperen isuriak  
maitasuna agortzean...

## AITA BATEN OTOITZA

Ez eistazu eroan Jauna  
neure alabatxu laztana,  
loretxu zimel gaisoa  
seaskatxuan etzana!  
Or dakust ene kutuna  
galduta bizi-jorana,  
burko gaiñean zabalik  
adats eder baltzarana.

Bera da itzalen artean  
daukadan argi bakarra,  
bizitzako erasoetan  
gidatzen nauan izarra.  
Bera dot aulkerietan  
zutik naroan indarra,  
negargura nazanean  
zorionezko irriparra.

Zorotzeko nengoala  
emaztea il yatanean,  
au aingerutxu polita  
askatxuan agertu zan.  
Berak itzitakoa da  
betiko joan zanean;  
oraintxe galduko ba'neu  
zelango utsa biotzean!

Oxin sakonak bai'liran  
onen begi baltzaranak  
oroitzen daustez, ai ene!  
amaren izan ziranak.  
Orain itxi-itxiak ditu  
izartxu yaukal otzanak;  
oi, zelan maite dodazan  
arein betseiñen laztanak!

Seaskan geisorik dago  
neure maitasun guztia,  
zerura joan zanaren  
oroigarri bizi eztia.  
Gauari antzi dario  
ene biotzari zauria;  
ez eistazu eroan Jauna  
seaskan dagon lilia..!

### JAGI ZAITEZ...!

Gaua baizen illuna  
lauazka izugarrian,  
zaldun baltza digaro  
eizaldi basatian.  
Bera aifnako izua dan  
zaldi baten ganian,  
arin doa gau-zear  
adats luzea aidian.

Sutan ditu begiak,  
izozturik biotza,  
odolbako ezpanetan  
yabilkola eriotza.  
Zaldiari dario  
irrintzirin zorrotza,  
ezusten oartzean  
orkatillaren otza

Sugekoak bai'liran,  
begi gorri odolduak  
sarkor zulutzen dabez  
bideetako inguruak.  
Labankeri zitalaz,  
gabeko jaun izuak  
sakabanatzen ditu  
kezkaren aritsuak.

Erri baten arnasa  
ito nai du illunpean,  
siñisteak ondatuz  
enda orren biotzean.  
Ipuin zaarrak dirala  
gaur galduak utsean,  
nonai lilluraz diño  
erailka igarotzean.

Gaua baizen illuna  
lauazka izugarrian,  
zaldun baltza digaro  
eizaldi basatian.  
Gogoak gura ditu  
jazarkuntza larrian,  
erria triskatzeko  
eriotz-egarrian.

Ez eik galdu arimea  
ene aberri maitia,  
jagi adi betikoa  
ertsita ire zauria.  
Bide latza amaituta  
barrundatzen da argia,  
bera da gure amesen  
askatasun euzkia...!

## SUZKO TXIMELETA

Gorri biziko tximeleta  
ortzian orban dardartsua,  
erdu neugana  
maite laztana,  
emoidazu bekoki-erdian  
zure suzko egoen musua.

Larretako asperen auskorra,  
loreen maitale biguna,  
ez zaitez joan  
aize-kolkoan,  
gelditu ene amesen ondoan  
zeruko egalari kutuna.

Larrako antzia bai'zintzazan  
ikusten zaitut nire alboan  
dantzari azkarra  
suzko dardarra;  
ekarkidazuz lore-amesak  
gorde dagidazan gogoan.

Odolezko ari urduriaz  
eioten dozuz zabaldian  
bide galduak  
itxaro itsuak;  
jarri eidazu kemen bizia  
nire gaurko larri-aldian.

Eguzkian txinpart-ikara  
arrastian odol-aparra,  
aize-pitxia  
urrezko antzia,  
laztan nagizu bekokian  
ken dakidan barne-sukarra.

Txiribiri laztangarria  
emon eistazuz zure egoak,  
arrats gorrian  
ortzi garbian,  
nonai zabaldu dagidazan  
arimaren ames zoroak...



## TXAKUR ALDERRAIA

Begi itunak utsean galdurik  
janariaz zoroki amesetan,  
maitasun eta itxaropen barik  
gaisoa bizi da naigabetan.

Kemena aspalditik joana,  
ule itsusiaz eta zikiña,  
lurrerantza jausita buztana,  
igesi dabil txakur erkiña.

Erpe zauritua dingilizka,  
ibillera neketsuz errenka,  
begi motelak itxita erdizka  
bidetik ikusten da or-emenka.

Goseak piztutako begiaz  
aztertzen ditu bide guztiak,  
beti usainka arrenkura bizi-  
ertzetako ondakin itziak.

Gosez eta bildurrez batera  
bizi da txakur zoribakoa,  
janari-ames aiñako izubera  
guztiek uxatuta gaisoa.

Baiña oroz gain egarri zoroa,  
itzaltzen ez dan ames kutuna:  
nagosi baten biotz beroa,  
aren etenbako maitasuna.

.....  
.....

Bein baten bidetik niñoala,  
ikusi neban basoko ertzean  
erpe eria mizkatzen ebala  
goizalde garbiko eguratsean

Alde egiteko zorian zala  
dei egin neutsan samurtasunaz,  
eta izuz begiratzen eustala  
urbildu yatan ezbaitasunaz.

Mukur baten ganean jarrita,  
erpe zauritua aztertu ezker  
arantza lodi bat erauzita,  
burua igurtzi neutsan gozoro

Maitasunezko isuri isiltsuan  
miazkatu eustan arpegia,  
eta goizeko ozkarbi argitsuan  
emostan bere biotz garbia.

Bizitzaren bidaldi luzean  
bera dot amesen laguna,  
eta ni naz aren biotzean  
bidetik jaritsi dauan zoruna.

## GABEAN ZEAR

Zidar-dizdiraz jantzita  
dardarrez dago lertxuna  
aize-altzoan entzutean  
espa baten oiartzuna.  
Ostoen dantza dirudi  
izar-asperen egoduna,  
illuntzean igurikan  
urrutiko maitasuna.

Galtzen yatazan amesak  
igesi doaz gabean  
lertxun-ostoa musuka  
izartxuak bai'lirean.  
Nire biotzeko egada  
artez doa illargipean  
maite dodana laztanduz  
ibarreko bestaldean.

Ortziko kolko geldian  
gau gardenaren zidarrak  
baretzen ditu isillean  
osto izutuen ikarak.  
Dei larrian yoakidaz  
nire arimaren didarrak  
irrika etsian eskatuz  
maite dodazan bi izarrak.

—Maitia —oiuz diñotsat—  
zatoz gau-zear neugana,  
naigabeturik nago-ta,  
zatozkit neure laztana!  
Baiña zidarrez jantzita  
isillean dago dana,  
negar dagidala etsia  
betiko galdu dodana.

## ERRIKO ILLERRIA

Erriko obitegi zuria  
bakartasun-miñaz eria,  
lats-ondoan etzana  
beti isil eta otzana,  
zugana yoat gogo-aria  
illeri baketsu ta itzia.

Aizean illen oiartzunak  
aditzen bide dira itunak,  
edo-ta iñularrean  
eguna doanean,  
eltzunen adaburu illunak  
jaurtitako asperen bigunak.

Egunez arresiko erpiñean  
argiaren txerak artzean,  
bulartxua dardarrez  
eta pozez didarrez,  
txori batek aintza betean  
edertzen zaitu goizaldean.

Gabeko aize lazgarriak  
astintzen ditu illarriak,  
atara naiean lez  
zakarrezko sumiñez  
ildakoen oiurriak  
beste mundutik ekarriak.

Errekaren suzmur biziak  
mimenen artean jaurtiak,  
illen ames etzanak  
aspaldiz joanak  
barrirazten dabez garbiak  
illuntzean zear geldiak.

Zure obirik baketsuena  
bekit azkenengo atsedena,  
eta egunen batean  
bizitza sutzitean,  
egin daidan urrats gorena  
itzulbako bidearena.

Erriko obitegi zuria  
bakartasun-miñez eria,  
txorien abestiak,  
latsaren eresiak,  
eta otoitz baten miraria  
izan bediz nire saria.

## EGO—AIZEA

Yadanik dator egoa  
erreka-aize ibiltaria,  
noranai sakabanatuz  
udazkeneko aldarria.  
Aieneka dago orbela  
basoan begiraria,  
il baiño len entzuteko  
soiñu baten miraria.

Dardarrez ikusten dira  
ortzi garbian izarrak,  
aditzen dirala nonai  
urre gorrizko zirarrak;  
aize epel sorgingarrian  
eusko lurraren didarrak,  
eta erreka bizietan  
mendietako negarrak.

Edurraren bildur nozu  
bizitzaren udagoian;  
artu naizu besoetan  
urrutirako bidaian,  
orbel zorotua antzera  
zuga amés egin daidan,  
ez baidot negu itunik nai  
nire izaera alderraian.

## ERRIMIÑA

Ames bat izan neban  
urrutiko atzerrian...:  
ezustean nengoan  
galduriko aberrian,  
musuka ebilkidala  
aize leuna arpegian  
etengabe suzmurka  
aurreko zabaldian.

Basoak emostazan  
asperen orlegiak,  
eta agur maitekorra  
errekatxu garbiak.  
Nonai etorkidazan  
oroitzean biziak,  
amak erakustazan  
aberriko eresiak.

Konturatu baiño len,  
jausi nintzan belaunez  
lurra ukutzen nebala  
atzamarrak dardarrez.  
Eskuetan artuta,  
arima ta biotzez  
abara eroan neban  
negar eta negarrez.

Ezpanetara barik  
itzar nintzan utsean,  
musuka ta musuka  
ezer ez illumpean...  
Malkoak eridazan  
astiro ta isillean;  
biotz-bitxiak ziran  
aberria galtzean...

## IDAZKIA

Oi lez isillik dago atsoa  
itzal illunkara alkoa,  
begiak utsean  
eskuak altzoan,  
barrutik negarrez gaisoa  
bete eziñik bere itxaroa.

Semearen biotz-zatia  
joan zanaren idazkia  
igurikan beti  
maitasun-goseti;  
antxe dago gogoa eria  
illuntzean geldigeldia.

Egun aspergarri ta itunak,  
gau amaibako illun-illunak,  
urrundu zanetik  
zorion bagerik  
noiz etorriko aren gutunak  
noiz ase amaren maitasunak.

Gaur noizbait illunabarrean  
argia nekatzen danean,  
eldu da idazkia  
estalkiz jantzia;  
an geratu da etxeko atean  
uso zuri apala lurrean.

Isillik dago etxe txikia,  
geldirik idazki zuria.  
Atsotxu gaisoa  
itzal alakoa  
il zan atzo guztiz itzia  
kendu eziñik bere zauria.

Idazkia be arratsaldean  
usotxu zuria bai'litzan,  
joan zan betikotz  
aizearen biotz,  
ekaitzari irautsi naiean  
eroiana bere barnean...

## SUKARRIETA'N

Gure Sabin lo dago  
itsas-ertzeko obian,  
isil-isillik datza  
illunabar geldian.  
Urrunean illotsak  
iparraize garbian,  
erri batenak dira  
negarrez etsi-etsian.

Oiñazeturik zakust  
Euskalerra laztana,  
betiko joan da-ta  
maite izan zaituana.  
Bizitzara ekarri eban  
il-urren egoana,  
emon euskun barriro  
galdu genduan ama.

Negar egiozue  
muru, baso zelaiak,  
laiñoz estali bediz  
mendi-tontor garaiak,  
malkoak bisuriez  
zeru goibel ta ibaiak,  
aiene estu larriak  
euskotarren erraiak.

Euzkadi'ko bidari,  
andik igarotzean  
sortu bekizu otoi bat  
arima ta biotzean.  
Begi illunak itxita  
an datza itsas-ertzean,  
gorde egizu betiko  
bizirik oroitzean



Gure Sabin lo dago  
itsas-ertzeko obian,  
isil-isillik datza  
illunabar geldian.  
Ez eizue iratzarri,  
itzi lo egin dagian  
maite-maite izan eban  
Sukarrieta'ko abian...!

## UME BATEN ESKARIA

Kaleak argitan dagoz,  
dendak jostailluz beteak,  
baiña ni Yosu maitia  
itoten nau naigabeak.  
Aspaldiz bakarrik nozu  
galduta bizi-adoreak,  
gure etxea isillik dago  
joan dirala barreak.

Emon zeustan anaitxua  
geisorik dago oe txikian  
ezagutzen ez nauala  
bere ondoan nagonean.  
Begiak itxita ditu  
buruko zuri ganean,  
ames larriak artuta  
zoro biurtu bai'litzan.

Zure Jaiotza ospatzen da  
erri ta lur guztietan,  
jostaillu asko ikusten dala  
umeen etxe alaietan.  
Zaldi eder bat ikusi dot  
aspaldi ontako amesetan,  
baiña orain ez dot ezer nai  
nagon kezka bizietan.

Ez dot jostaillurik bear  
Yosutxu maite-maitia,  
bera bakarrik gura dot  
nire anai kutun txikia.  
Etxeko poztasuna da,  
alaitzen gaitun txoria,  
nirekin jolastu ezean  
ez niri ekarri zaldia.

Ama negarretan dakust  
aita naigabe bizian,  
etxea itzaletan dago  
jaio zaran egunian.  
Zorion amaibakoa  
nagusitzen da ludian,  
osatuizu nire anaia  
neugaz jolastu dagian...!

## GALDUTAKO MALKOA

Malko bat ikusi neban  
goizeko altzoan dardarrez,  
biotz baten antzia zan  
zeru-itsasoen ederrez.  
Bideko ertzean egoan  
argi geldian oiñazez,  
ortzian zear begira  
etsipenezko naigabez.

Goizaldean galduriko  
lore-asperena bai'litzan,  
iltzer egoan laztana  
bideko auts zikiñean.  
Joan nintzaion astiro  
ta zabaldiko isillean,  
ipiñi neban maitero  
nire biotz bakartian.

Maitasunak aztutako  
neska batena zan,  
pairamenak sorturiko  
itxaropena galtzean.  
Geratu zan geldi-geldi  
nire biotz-epelean,  
lotan egoan gaixoa  
ala eriotz-illunpean?

Malko bat ikusi neban  
goizeko altzoan dardarrez,  
biotz baten antzia zan  
zeru-itsasoen ederrez.  
Nirekin beti daroat  
intziri baten oroitzez;  
isuriko ez al-dira iñoiz  
errubakoen oiñazez...!

## BEDAR - IZPIA

Bedar-izpi ezain txikia  
mendiko gaillur batean.  
zimeltzen zan eder-miñez  
neguko bakardadean.  
Argiari eskatzen eutsan  
otoi bizi ta isillean,  
edertu egian musuka  
goizaldea jaiotzean.

Beti amesetan gaisoa  
loretxu biurtzen zala,  
orok ederretsitako  
mendiko bitxi yaukala.  
Baiña itzarrita goizean  
barriro zan bedar apala,  
guztiek aztu egindako  
izpitxu lander makala.

Otz andiko illuntze baten,  
arrastiko besoetan  
odeien negar zuriak  
jausi ziran mendietan.  
Bedar-izpi bakartia  
aieneka bizietan  
il-zorian sentitzen zan  
ekaitzaren uluetan.

Zurrunbillo zoro baten  
edur-maluta bat joian  
bitxi zuria bai'litzan  
bizibako zabaldian.  
Ego eder zurietako  
tximeleta zirudian,  
ames gardenen negarra  
arrastiriko illundian.

Ilteko zorian zala  
bedartxuak ikusi eban,  
eta gerria luzatuz  
laztan bat eskatu eutsan.  
Edurraren apa artzean  
gaisoa lo geratu zan,  
ames egin ebala  
neguteko eriotzean.

Udabarriko egun baten,  
bedar-izpi ezain apala  
iratzarri zan goizean  
loretxu bikain yaukala.  
Ames baten irrika zan,  
edurrezko lili-atala,  
aizearen laztanpean  
txairo kulunkatzen zala...!

## OIÑOTSAK GABEAN

Gabean oiñotsak datzudaz  
basoko isillean galdurik,  
biotz baten taupadak dira  
bidean zear norabarik.

Maitiaren irudi ederra  
beti bizi-bizi gogoan,  
noz agertuko ete begira  
alperriko itxaro zoroan.

Loaren gentzan ustekabez  
azaltzen da bera amesetan,  
baiña urreratzean, ondikotz!  
urruntzen da ostera itzaletan.

Gabean oiñotsak dantzudaz  
basoko isillean galdurik,  
neure biotzarenak dira  
bidean zear norabarik...

## JAUNAREN BILLA

Zure billa noatzu Jauna  
baretzen ez dan egarriaz,  
zeugana zerbaitek naroa  
zorion-gurari larriaz.  
Argiaren atzetik nabil  
gau ta egun irrika biziaz,  
batetik bestera oztopoka  
itsuaren ezbai etsiaz.

Itxaroten naukazu Jauna  
bizitzaren bidai luzean  
noiz agertuko zure argia  
zapaltzen nauan illunpean.  
Bideetatik itaunka noa  
non idoroko ete zaitudan,  
baiña ezin dot ezer aditzen  
inguruko isiltasunean.

Urietatik galdez noa  
kalerik-kale zure atzetik,  
an egongo zaralakoan  
gizonen artean bizirik.  
Ez dago erantzunik, baiña,  
danak iraduz jabeturik,  
bizitzaren ito-larrian  
ez dabe niretzat astirik.

Mundua ez da zutaz oroitzen  
egunoroko ekaitz zoroan,  
gogotik jaurti izan baizara  
oztopo andi zaralakoan.  
Anaitasunaren lokarri estua  
iñondik ez gaurko etsaigoan,  
gizona gero ta zekenago  
diru-zalekeri gaiztoan.

Edonon nagusiak dira  
naigabe ta bearrizana,  
urrea ta aalmena izanik  
gaur erakarten gaituana.  
Izerdi-odolaren artean  
zaitut egizko itxaropena,  
zeugan artu naizu arren Jauna,  
idoro daidan atsedena.

Zeugana arin joan nakizun  
esan eistazu non zagozan,  
ibitu dakidan gogoa  
zure biotzaren bakean.  
Batzutan barrundatzen zaitut  
neure izaeraren barnean,  
baifia agertuta baizen arin  
ostentzen zaiataz utsean.

Basabereak ba daukie  
non ase euren gose gorria,  
non amatau sargorietan  
zadorraren edan-larria.  
Esan non idoroko dodan  
zure ustueziñeko iturria,  
baretu dakidan betiko  
irusten nauan egarria.

.....  
.....  
.....  
.....

Nire galdez zabilkidazan  
bide urrutiko ameslaria,  
zelangura idoro naikezu  
edonon bainago agiria.  
Gogo-begiak edegizuz  
orron zaitudan bidaria,  
ta orduan ikusiko nozu  
galduta zoazan billaria.

Egurats eta aizean nozu  
izadiari arnasa emonaz,  
betirauneko orain bizian  
dana bete daiten pilpiraz,  
Neure eskuak zeruan zear  
ortzia alaitzen dabe argiaz,  
eta eguna ostentzen danean  
izarren begiak dizdiraz.

Ortziko zabaldian nagotzu  
odeieri egoak jarriaz,  
lur elkorra ureztatu daien  
euren malkoen isurtzeaz.  
Itsas-uiñen gaiñetik nabil  
apar-musuen eresiaz  
ur kresalak lo-erazoteko  
ames urdin sorgingarriaz.

Txiki-txiki eginda naukazu  
landare baten alean,  
bero-ezotasun miraritsuz  
jaio daiten eguzkipean.  
Basoan idoro naikezu  
egutaizeko suzmurrean,  
deika yabildan loretxua  
nire laztana artu dagian.



Latsetan bizirik nozu  
leiarrezko abotsaz kantari,  
mendiko ezkutua azaltzeko  
egarri dan bidariari.  
Ni naz gabeko erestaldian  
abereñoen begirari,  
bakean ikusi dagien  
izar urruntsuen mirari.

Ozkorri bizian naukazu  
aienatuz doan orbana,  
zeru-itsasoak ar dagien  
nire odolduriko laztana.  
Goizean argi pizgarria,  
gabean atsedeen otzana,  
eta arima oiñazetuari  
aringarria damotsana.

Billatu nagizu bidaria  
ume baten irri-barrean,  
txori baten eresi argian,  
tximeletaren dantza alaian.  
Zabaldian zear noatzu  
aizearen txera garbian,  
eta urretik entzungo nozu  
baso-illunabar isillean.

Dei ta deikà larri yabildan  
ama baten ondoan nago,  
eta otoiza abora baiño len  
nire biotz-barruan dago.  
Atsekabez zagozanean  
orduán nozu zukanago,  
oiñazea beti izan da-ta  
gizaki garbien arrago.

Billatu nagizu bidetik  
orein egarritsu langoa,  
ta aurkituko dozuz nire urak  
galduta zoazan gaisoa.  
Nire galdez yabildanentzat  
ba-daukat janari sendoa,  
nire gorputz-odolarena  
indargarri benetakoa.

Baiña agertuko ez ba'nintz iñon,  
maite egizu une guztietan,  
biotzaren puskak itzi arte  
bideko neke ta arantzetan.  
Zure buruari uko egiñik  
sar zaitez besteen oiñazetan,  
eta orduan zure anaiakan  
idoroko nozu benetan.

Oiñazetua dagonakin  
pairatu egizu bidaria,  
gosetan aurkitzen danari  
emon eiozu janaria,  
laguntza bear dauanari  
zure indarraren euskarria,  
ta orduan ikusiko nozu  
galduta zoazan billaria....

## NESKATO ITSUA

Begiak utsari begira  
ildako artizarrak bai'liran,  
neskatoa bakarrik dago  
arratsaldeko argi geldian.

Baserriko bitxi kutuna  
jaiotzetik laztan itsua,  
aizeari itaundu egiozu  
ikusten ez dozun mundua.

— Illunabarrean dantzudan  
Errotazuri'ko txindorra,  
esaidazu zelangoa dan...

Agur baten eresia da,  
txera gorrizka aguratsean,  
sutondoko bero alakoa  
negua urreratzen danean.

— Ekaitz gogorretan dantzudan  
urrutiko itsaso zakarra,  
esaidazu zelangoa dan...

Adats zuriko leoia da  
aserre-bitsetan orruka,  
bestetan, ostera, bildotsa  
ondar bigunari musuka.

— Antzi gozoetan dantzudan  
ibarreko lizar tantaia,  
esaidazu zelangoa dan...

Suzmur orlegizko jorana  
nire apa-laztana artzean,  
lo zurietan murgildurik  
illargia agertzen danean.

— Leiar-eresitan dantzudan  
zabaldiko iturri gardena,  
esaidazu zelangoa dan...

Iñontzeko alaba antzekoa  
iñar arteko apar galdua  
iraduz jabeturik doan  
mendiko negar ezkutua

— Aiene bizian dantzudan  
ibarreko larrosa aztuta,  
esaidazu zelangoa dan...

Odolduriko kimua da  
argi samurreko ozkorrian,  
usaiñeko asperen isilla  
gabeko altzo laztangarrian.

— Basoko olerkaria zaran  
iparreko aize neuria,  
esaizu zelangoa nazan...

Eguratsean zear doan  
garbitasuneko aldarría,  
arima-barruan sortzen dan  
eder yaukalen iturria.

Ai, baserriko lore itsua...!  
Zu zara ene izar ezkutua,  
lotan dagoan aingerua,  
ames eder baten zerua...

## LATSAREN BIDAIA

Mendi-edurren besarkadaz  
jaio zan udabarrian,  
izarren keiñu zoroak  
ilten dirala urrutian.

Goi-laiñoak uxatuta  
arin doa lats garbia,  
iraduzko suzmurretan  
larri ta berantetsia.

Arriz-arri jaustean,  
ertzeari galdez doa  
txilifnezko didarretan,  
non dagoan itsasoa.

Ortzari aieneka  
gabeko isil sakonean,  
arren, erakus dagion  
maitia non daitekean.

Ez zaitetz atsekabetu  
mendiko aldarri lastana,  
artizar ezkutu batek  
eroango zaitu arengana.

Mendi-edurren besarkadaz  
jaio zara udabarrian,  
itsaso-miñaz eria  
ilgo zara udazkenian.

## JAREITU ZAN

Txòri bat ikusi neban  
arratsaldeko itzaletan,  
egan eziñik ebillan  
izuz jota arifeketan.

Esku-arrean arturik,  
dardarrez sentitzen neban,  
bioztxua taupadaka  
sama biguna isilllean.

Lastandu neban polliki  
baretu ekion bildurra,  
luma leunetan ipiñiz  
ezpanen txera samurra.

Eskuaren epelean  
lo geratu zan gaixoa,  
ames biurtzen yakola  
biotz-taupada zoroa.

Etxeko babes geldian  
ez eban ezer jan gura,  
kendu eziñik, lastana!  
bere barruko illundura.

Illotzik idoro neban  
egun sentia zanean,  
goiz-argiari begira  
ames baten isilllean.

Argiarentzat egiñik,  
aske izateko jaio zan.  
Jare geratu zan noizbait  
egun-argia sortzean.

## UIÑAREN MUSUA

Eun itsas-txorik agurtu eben goizean,  
izar orok argitu izan zan gabeen.  
An joian sortu barria,  
zazpi itsasoko aldarria,  
aurrera etenbage egurats urdinpean,  
ertzeko dei urrutia sentitzean.

Goizean musukatu eban ozkorriak  
jarten eutsazala odolezko bitxiak.  
Esmeralezko arria zan  
argi bete egin zanean.  
Odeiak emotsazan zidar-jantziak,  
eguzkiak urre epelezko geziak.

Gaillurrean eroiazan urrun-miñak,  
kolkoan, laztan-gurari itzungi-eziñak.  
Egoalderantz oska joian  
didar baten jarraian,  
egunak igaroten zirala ariñak  
gabeko itzal eta goiz-argiz egiñak.

Arratsalde baten ondartzia ikustean,  
bizkarra arrotuz aurrerantz oldartu zan.  
Milla abotsen eresiak  
ekartsozan ur naasiak,  
eta onen soiñu jarki-eziña aditzean,  
burua jaso eban azken goraldian.

Ler egin eban dunbots irakitsuan  
ondarra laztanduz egarmin itsuan,  
aparrezko musu argia,  
kresalezko agur bizia.  
Aize-asperenez sorturik itsasoan,  
zorionez il zan irrika zoroan.

## GOIZALDEKO ERESIA

Ortzian zear zoazan  
abesti eder zolia,  
biotzean jaio zaran  
sentipen baten bitxia,  
itsu bat bide-ertzean  
miñetan dozu itzia,  
gel adi bere ondoan  
goizaldeko eresia.

Baretu aren oñazea  
goiz urdin aratzean,  
zure soiñu garbia  
sar bekio gogoan.  
Jarri egizuz dizdirak  
barru goibel otzean,  
irripar bat sor daiten  
aren negu itzaltsuan.

Zaitetz bere ondoan  
goizaldeko eresia,  
larri-larri dago-ta  
gau luzeak etsia.  
Laztandu samur-samur  
bere ikusmen geldia,  
esaiozu polliki  
zu zaituala argia.

Aizean galduriko  
aintza-zati goitarra,  
piztu egizu aren baitan  
itxaropenaren garra.  
Jar bere biotzean  
joran baten zirarra,  
zeugan idoro daian  
bere amesen izarra.



## AURRENEKO EDURRA

Begi zoliak piztuta  
goizaldeko argi bizian,  
irrika, danaz aztuta  
baserriko umea joian,  
eskuakaz laztantzeko  
atxetako edurra an goian.

Neguko lenengo emoitza  
isillean geldi ta otzan,  
egi malkortsuan dizdir  
elurtza garbia zetzan,  
txirlarri zabal antzera  
umearen igurikan.

Ozkarbi oztiñean zear  
aize otzeko magalean,  
oar-dei bat aditzen da  
gaillurrera urreratzean;  
negar darion antzia  
neskatoari esatean:

—Ez adi joan aurrera  
basoko bitxi neuria,  
bai, biurtu adi ire etxera  
neure ume maite-maitia,  
iretzat ez baidon eifña  
neguko negar zuria.

—Adi ezan aingerutxu ori  
ilgarria don edurra,  
eriotzaren musua,  
itxuraz beti samurra  
baiña askotan gatx-ekarle  
eta izadiko makurra.

—Zabaldiko zigor orrek  
txoriak ilten dozanan;  
aizan zein larri ta goibel  
ingurua deritxanan,  
isillean geldi-geldi  
eriotzeko besanan.

Baiña ume lilluratua  
jaramon egin bagerik,  
edurreraiño iritxita,  
asi zan aren gaiñetik  
pozez txaloka ta barrez,  
danaz aztuten zalarik.

Alako baten, ondikotz!  
laprast egiñik ezustean,  
jausi zan arkaitzetatik,  
beekaldeko amildegian  
illotzik geratzen zala  
eguerdiko argipean.

Ortzi oztiñean geldirik  
bakean eritxan dana,  
aize neigabetuari  
zabaldi-zear otzana  
iges egiten yakola  
malko baten laztana:

—Oi, baserriko kutuna,  
neure txirlarri garbia,  
lore gorria emoten don  
ikuste-naiaz eria,  
edurrezko oe zurian  
ames geldian suntzia!

Anboto mendian jazorikoa.



## NAIGABE ZOROETAN

Irribarrez nenkusan  
nire ames zoroetan,  
begietan izarrak  
lore gorri ezpanetan.  
Kantari entzuten neban  
egurats-besoetan  
nire arima laztanduz  
urrezko olerkietan.

Irribarre argitsua  
ta urre antzeko eresia  
irrikatzen nebazan  
gau ta egun berantetsia.  
Arratsaldeko altzoan  
bide-ertzean geldia,  
agertu yatan noizbait  
bere irudi maitia.

Irribarrez egoan  
iñoren besoetan  
eresiak isuriz  
aren belarrietan  
Olan ikusi neban  
illuntzeko itzaletan,  
il-zorian nintzala  
naigabe zoroetan...

## EMAZTEA

Aztamuka an eta emen  
illunpetan nengoan,  
argia non izango  
nire ibilte zoroan.

Bizitzatik niñoan  
otzez dardar larrian,  
berotu ezin gogoa  
sute isil itzungian.

Atseden billa beti  
armiñaz nekaturik,  
baiña ene gurariak  
ez eukan betetzerik.

Idoro nai nebazan  
ur garden ozkirriak,  
amatatzeko noizbait  
arimako egarriak...

Eta goizalde baten  
agertu yatan bera,  
zoroki nai izaniko  
larrosa eder-ederra.

Beragan aurkitu dot  
maitasun il-eziña,  
bein betiko kendurik  
aspaldiko egarmiña.

Ordudanik badaukat  
gidatzen naun argia,  
benetan bear neban  
aingeru zaindaria.

## URKARIÑEA

Iia baizen lerdena  
arratsaldeko argian,  
urkariñe liraiña  
lora bat zirudian.  
Begi ederrak zituan  
artizarrak ortzian,  
ezpan gorri-gorriak  
aingeruko arpegian.

Ikusi eban artzaiñak  
iturri-ondoan zala,  
aztutako larrosa  
itxaropen yaukala.  
Neskak eskiñi eutsan  
erabeti ta apala,  
iturriari erion  
leiarrezko zozpala.

Larrosa bat nai eban  
iia baizen lerdena,  
urkariñea bera  
lorerik maiteena.  
Izar eder sakonen  
begiratze gardena,  
ezpan gorri-gorrien  
irribarre gorena.

Bere arima emon eutsan  
urkariñe liraiñak,  
biotz sutsu garbia  
sorginduriko artzaiñak.  
Iturriko ur biziak  
galtzen ziran ariñak,  
gazteakan isuriz  
betiko ames urdiñak.

## ODOLDURIKO LOREA

Lora bat nai eban  
irrika bizian,  
lora eder gorria  
neguko altzo erian.

Lora gorririk ez  
baratz isillean;  
illik zetzan dana  
edurraren pean.

Mutillak lora bat  
arrenka edurrari,  
neskari emoteko  
maitasun-opari.

Edurrak orduan,  
argiz isuria,  
sortu eban beretzat  
lora eder zuria.

Neskagana arinka  
mutilla joan zan,  
eskintzen eutsala  
pilpira zoroan.

Neskeak asarrez  
bota eban lurrera,  
oinpean zapalduz  
lore maitebera.

Oinpeko bakotxaz  
lora-atal zuriak  
billakatu ziran  
odolezko antziak.

Jaso nai izan eban  
larrosa jausia,  
baiña illik egoan  
neguko bitxia.

Mutillagan ere  
samiñez eria,  
illa zan betiko  
maitasun-lillia.

## OTOITZA

Ortzian gora isillik  
izarrak besarkatuz,  
irrika bat iraduz  
egan joian zerutik.

Jaio zan barruan  
oiñazezko itzalean,  
sortu zan ezustean  
negar baten orduan.

Antziz eta larria  
aidean zear joian,  
arranoa bai'litzan  
kabi-miñaz eria.

Nai bizien egoitza,  
malko bat argian,  
bera zan ozkarbian...  
ama baten otoitza.

## ZAZPI LORA

Zazpi lora, gorri bizian  
sortu ziran egunsentian.  
Barruko laztanak  
betiko joanak,  
suzko larrosak goiztirian  
jario isil eta geldian.

An egoan geldi ta itzia  
baitu egindako gudaria;  
bai mutil lerdena  
Erri-itxaropena!  
Gorputz sendo, bular andia,  
biotz zintzo baten kabia.

Zazpi iltzaille mutillari adi,  
su-iskillopean begirari.  
Eriotz-aurrean  
aditzen da orduan,  
mutillaren azken gurari  
goi-jorana dan "Gora Euzkadi

Zazpi lora gorri bizian  
sortu ziran egunsentian.  
Aberri negarrak,  
galduriko izarrak,  
suzko larrosak goiztirian  
jario isil eta geldian.

## ERRI—MIÑA

Itsas-andiz bestaldean  
itzi neban aberria,  
zabalik dodala ordutik  
senda-eziñeko zauria.  
An galduta somatzean  
baserri txiki maitia,  
gogotik igesi yoat  
negar baten intziria.

Esaidan kaio lerdena,  
ire urrundiko bidaiari  
ikusi ete yonan nonbait  
etxe zuri bat an goian.  
Axe da nire kabia  
oi lez itxaro geldian,  
joan zanaren begira  
illuntze ta egunsentian.

Begi sakon gaztainkarak  
geratu ziran naigabez,  
dizdir galdutako izarrak  
ene oroitzari negarrez.  
Gau ta egun dei nabilkie  
barritutako joranez,  
baiña urrutiko lanbroan  
ezabatzen dira oiñazez.

Biurtu nai dot, ai ene!  
itzi neban aberrira  
baretu dakidan noizbait  
neure arimaren pilpira.  
Ez dot emen jatsi gura  
gerturik dodan obira,  
irrikak eragiten nau  
sortu izan nintzan kabira.

Egurats zurbillan zear  
adurak arin nara,  
goian odei alderraiak  
beekaldean itsasoa.  
Araindian begira dot  
nire azkenengo geroa,  
an artuko dot bakean  
lurraren laztan gozoa...!

## ISILDU DA

Larri daukat biotza  
gogoa illun-illuna,  
atzo joan yat, ai ene!  
maite neban laguna.

Itzali zan isillik  
illunabar garaian,  
nekaturiko argia  
aienatzen danean.

Asperen gozo illaunaz  
nigandik agurturik,  
itzi ninduan bakar  
negarrak eutsi eziñik.

Eroaten genduala,  
adar baten kantari,  
txindor bat samifetan  
asi zan ari ta ari.

Ain maite izan zituan  
txorien dolua zan,  
oroitz baten bitxia  
arrastiko aizean.

Kutxea estaltzen zala  
zabaldutako obian,  
mokillen jauskerea  
agur bat zirudian.



Bere oroitza laztanduz  
otoi bat sortu yatan,  
neure azkenengo agurra  
oiñazezko egoetan.

Andik alde egitean  
astiro ta mutua,  
uda zan lekorean  
biotzean negua.

Etxe itun itzaltsuan  
oartu nintzan etsia,  
betiko nengoala  
oroi-miñez eria.

Larri daukat biotza  
gogoa illun-illuna,  
isildu da betiko  
maite neban laguna.

## MAITE ZAITUT, EUSKERA...!

Erri baten arnasa,  
aztutako bitxia,  
urten zaitez plazara  
basoko lore itzia!  
Billa nabiltzu beti  
neure amesen kabia,  
maite zaitut, euskera,  
txoriak lez aizia...!

Utsik dagon sutean  
bakarrik eta etsia,  
isillean darizu  
joran baten antzia.  
Non dituzu semeak  
ken daizuen zauria,  
mendiko lili apala  
errauskiñe neuria?

Izan zaitez ostera  
Itxaropen barria,  
euskaldunen gogoa,  
iraupen miraria,  
plazan artu dagizun  
baserriko ezetsia,  
semeek gertutako  
erregiñen aulkia!

Biotzean zaroat  
euskal suzmur bizia,  
nire ezpanetan zaukat  
aberriko olerkia,  
Ez nagizu iñoiz itzi  
arimako ots garbia,  
maite zaitut, euskera,  
Loreak lez argia...

## AURKIBIDEA

BIDEKO ZOROA	1	SUZKO TXIMELETA	72
ISIL-ISILLIK	4	TXAKUR ALDERRAIA	74
KILKERRARI	7	GABEAN ZEAR	76
ORBELAREN ERESIA	9	ERRIKO ILLERRIA	77
BASO-SAGUA	14	EGO-AIZEA	79
ITSAS-ERTZEAN	19	ERRIMIÑA	80
ODEIAK URDIÑEAN	21	IDAZKIA	81
ILLUNTZEKO GENTZAN	22	SUKARRIETA'N	83
ERRUBAKOA	24	UME BATEN ESKARIA	85
NORABAGE	27	GALDUTAKO MALKOA	87
DIAMANTE ILLUNAK	29	BEDAR-IZPIA	88
JAGON EGISTAZU...!	33	OIÑOTSAK GABEAN	90
GALDU NEBAN	36	JAUNAREN BILLA	91
SEASKA KULUNKAN	37	NESKATO ITSUA	96
ITURRI-ONDOAN	40	LATSAREN BIDAIA	98
BILLA NABIL	42	JAREITU ZAN	99
BOST MALKO	44	UIÑAREN MUSUA	100
OLERKIA DA...	46	GOIZALDEKO ERESIA	101
ASKATASUN EGUZKIA	48	AURRENEKO EDURRA	102
ATSOTXUA	51	NAIGABE ZOROETAN	104
NEURE ZIDORTXUA	54	EMAZTEA	105
BASETXE ITZIA	56	URKARIÑEA	106
MAITALEAREN EGOAK	60	ODOLDURIKO LOREA	107
DEIKA NABILKIE	63	OTOITZA	109
TXINDORRA TA BOK	65	ZAZPI LORA	110
ILLOTTA	67	ERRI-MIÑA	111
AITA BATEN OTOIZA	68	ISILDU DA	113
JAGI ZAITEZ...!	70	MAITE ZAITUT EUSKERA...!	115

1. ITZ LAUZ. LIZARDI
2. GAZI-GEZAK. ABELETXE
3. ALTZATE'KO JAUN. Pio Baroja  
A M A L. Rabindranath Tagore
4. BIDETIK AMESETAN. Zubiri'tar Iñaki